

**K**...eta!  
**Kitto!**

2016-XII-16

996 zkia.

# Bolunburu bizirik ehun urte geroago

**EIBAR** SOFAK ETA KOLTXOIAK  
**sofás**

**Karmen, 15**

943 531 261  
688 669 479

30 urteko esperientzia sektorean

**ORDUTEGIA**  
astelehenetik zapatara  
10:00-13:00  
eta 16:30-20:00  
ASTELEHEN GOIZETAN ITXITA



**2017 urte  
zoriontsua!**



Policlínica Gipuzkoa

Grupo  Quirónsalud

# Endokrinologia, Eibarko Policlínica Gipuzkoako espezialitate berria

TERESA SERRANO  
ENDOKRINOLOGOIA

**Eibarko Policlínica Gipuzkoako mediku-taldean sartu da eta bertan pasatuko du kontsulta hileko lehenengo ostegunetan.**



Teresa Serrano Policlínica Gipuzkoako endokrinologoa.

Eibarko Poliklinika Gipuzkoak espezialitate berri bat gehitu du eta Teresa Serrano endokrinologoa kontsulta pasatzen dihardu abenduaren 1az geroztik **Ibarkurutze kaleko egoitzan. Endokrinologia orokorreko zerbitzua eskaintzen du eta gizentasuna, diabetesa, tiroides arazoak, hipotalamo eta hipofisiaren patologia, giltzurrun gaineko guruinen alterazioa...** duten 16 urtetik gorako pazienteei atenditzen die.

**“Gizentasuna da 2 motako diabetesaren arrisku-faktore nagusienetakoa, eta bi patologia horiek dira, hain justu, endokrinologian gehien ikusten ditugunak. Gizentasuna ekiditeko dieta zaintzea gomendatzen da, fruta eta barazkiz osatutako elikadura, lekaleak, haragia baino arrain gehiago jatea eta koipe-iturri nagusia oliba-olioa**

**izatea. Mediterraneoko dieta deritzonak biltzen ditu ezaugarri guzti horiek”,** dio Teresa Serrano endokrinologoa. **“Ariketa fisikoak ere asko laguntzen du endokrinologiaren eremuko patologia nagusiei, eta beste askori, aurrea hartzen”,** dio Serranok.

Doktorearen hitzetan, **“iodo faltak eragindako hipotiroidismoa prebenitzeko gatz iodatua hartzea gomendatzen da; hala ere, gure inguruko hipotiroidismo kasurik gehienak, ez ditu falta horrek eragiten, baizik eta prozesu autoimmuneek edo gure gorputzeko proteinen kontra gure defentsek dituzten erreakzioek eragindakoak dira. Kasu horietan prozesua**

**zaindu eta patologia tratatzea besterik ezin dugu egin”.** “Especialitate honen gainontzeko patologiei dagokienez, momentuz, ezin ditugu prebenitu”, dio doktoreak.

## PISUA GALTZEA

**Pisua galdu nahi dugunean, batez ere kilo asko ditugunean soberan, Teresa Serranok zera dio: “Epe luzeko prozesu moduan ikusi behar dugu. Nire pazienteei esaten diet helburu hori maratoi baten antzera hartu beharko lukezela eta ez 100 metroko lasterketa moduan. Gainera, pisua galtzeko dieta osasungarrirako ohiturei bizitza osoan eutsi behar diegu, galdutako pisua berriz ere ez hartzeko; izan ere, pisua galtzeak ez du ezertarako balio, gero, lehenengo ohituretara itzultzen bagara”.**

**“Orain dela gutxi iritsi da Espainiara pisua galtzen laguntzen duen oso botika eraginkorra; botika horrek dituen desabantailak dira garestia eta injektagarria dela, baina kasu jakin batzuetan oso lagungarria izan daiteke, profil kardiobaskularra hobetzen ere laguntzen duelako. Hala ere, argi izan behar dugu botika horrek ez duela dieta osasuntsu eta orekatua ordezkatzeko, baina egia da dieta horren eragina indartu egiten duela”.**







Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**

erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**

elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia  
Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**

Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA**

**MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Bolunburu senitartekoen bilduma

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.150 ale.

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.

**ISSN:** 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# Eskutitzak

## – OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gaintzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitzke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LEHENGO SAMATIK BURUA.-** Iritziari tinko eusten dionari, erraz aldatzen ez duenari buruz esaten da. “Alperrik hogeitaz urte igaro, lehengo samatik harek burua”.

**LEHENIAN EGON.-** Lehengoari, bereari eutsi. Gaztelerazko ‘mantenerse en sus trece’.  
“Alperrik erakutsiko detsak bideua, hori beti lehenian egongo dok”.

## astean esanak

“Gay eta lesbianen kontrako kanpaina borobila atera zaio Putini. Haien kontra eginez eraiki eta zabaldu zuen estatuaren aldeko jarrera. Errusiar gehienak ziur zeuden ez zutela gay, lesbiana edo transexualik ikusi beren bizitza osoan, eta horregatik errazagoa zitzairen gobernuak haien gainean esandakoa sinestea; gehienek gayak akabatzea beharrezkoa dela usteraino. Abortu eskubideen inguruan, aldiz, Mendebaldeko hainbat herrialdetan baino jarrera irekiagoa dago Errusian”  
(MAXA GESSEN, EKINTZAILE ERRUSIARRA)

“Ezin dut inondik ulertu Oskorriren azken diskoaren titulua *Hauxe da despedida* izatea. Zergatik jarri behar duzu dialektokeria bat horrelako izen batean? Hurbiltasuna irabazten duzu? Zeinentzat? Euskaldun batzuentzat; beste guztientzat, kontrakoa. Hizkuntza biziagoa da? Hori bazterrak nahastea da. Euskalkiek etorkizunik ez dutelako, desagertu behar dute. Bihurtu behar dira euskararen koloreak, gaztelaniaz argentinioa edo andaluzia diren bezala. Zertarako egin dugu euskararen batasuna orduan? Hor jatorria asko dago. Konplexu txarra dute batzuek araukin-eta, baina erdaraz ere hitz egin dezatela edozein moduz”  
(IBON SARASOLA, EHUO IRAKASLE OHIA)

“Futbolaren irratia emankizunen tiraniak goia jo du Euskadi Irratian. Aurreko astean, hil ala bizikotzat jo ohi diren lau neurketek *Arratsean* eta *Zidorrean* kultur irratisaioak anputatu egin dituzte ia egunero. Badago gauza tristeagorik euskal kultur gile batentzat urteetako ahaletetik irteerako sormen lana ilusioz beterik aurkeztera joan irratia publikora eta, gutxiene espero duenean, ‘kitto zure berriketa; futbolari eman bidea’ entzun behar izatea? Zurea baztergarria dela eta sakratua futbola. Makulu Ken musika taldekoek esan zuten, prest leudeke baloia eskuetan eta galtzamatzetan estudioa joateko, futbolaren telonero izan beharrean”  
(XABIER LASA, KOMUNIKABIDE KRITIKARIA)



FELIX MORQUECHO

## Hezurbeltz

Orain dela egun pare bat lagun bati ea 'hezurbeltza' zen galdetu zion batek. Ez zen Eibarren izan eta niri arrotza egin zitzaidan hitza. Zer da hori? galdetu nion, naiz eta hitzari soinu ona ez antzeman. Erantzuna hiztegi batek eman zidan, "que no habla vasco; inmigrante" eta sinonimoak ere, beste batzuen artean "maketo". Gutxitan entzun dut nik hitz hori, agian horietako bat naizelako... edo ez? Ama euskalduna duzunean eta aita ez, zer zara, erdi eta erdi? Grazia gutxi ez, gutxiago ikusten diot nik hitzari, eta bere sinonimoari berdin. Gaur egun hainbat lekutako etorkinak bizi gara gure inguruan eta dagoeneko aldaketa batzuk ikusten ari gara. Beste egun batean andra batek neska bati behatzarekin apuntatuz esan zidan "eta euskaraz egiten du, primeran". Neskak bere begi asiatiakoekin begiratzen zuen lotsati. Gero eta sorpresa gutxiago hartzen dugu norbaitek euskaraz egiten badigu, berdin beltz, hori, gorri edo azal berdekoa izanda ere. Bakoitzak bere jatorriagatik harro egoteko eskubidea dauka, noski baietz, baina hori ezin da aitzakia izan bestea mespretxatzeko. Eibartarrak onenak garela argi dago (ironia pixkat, mesedez), baina besteek ere bere puntua izango dute nahiz eta gehiago bilatu behar izan. Eta gauza bat argi dago, ondo arakatu gero ikusiko dugu hezurretan denek, hangoak eta hemengoak, antzeko kolorea dugula.

## Bixar ekingo jako Erabaki Biot egitasmuari

Eibarko Gure Esku Dago herri-ekimenak, eskualdeko gaiñerako herrixekin batera, maiatzaren 7an herri-galdeketa egin nahi dau eta, asmo horrekin, bixar 12:30xetan, ekimenari babesa emoteko talde argazkiza egingo da Untzagan eta, horrekin batera, siñadurak biltzeko kanpainari ekingo jako. Ekitaldixa eguaztenian presentau eben, udaletxian, eta azal dutakuaren arabera, "Eibarko herri-tarrak gure etorkizuna demokratikoki erabagitzeko asmuarekin, pausuak emoten hastera goiaz. Galdeketa bida emon ahal izateko, premiñazkuak diran hainbat zeregin dagoeneko bete dittugu. Alkartiaren estatutuak erregistratu dittugu eta Batzorde Sustatzaillia be eratu dogu. Herri-galdeketa zillegitasuna izateko eibartarron atxikimendua jasoko dogu eta, hori lortzeko asmuarekin antolatu dogu, hain zuzen be, bixarko ekitaldixa".

Bixar eguardixan hasiko dan "Erabaki Biot" kanpainarekin, "informaziñua zabaldu, eritzixen arteko eztabaida bultzatu eta bozka eskatu" nahi dabe. Izan be, lehen urratsa siñadurak batzia izango da: "Galdeketa deittu ahal izateko Eibarren gitxienez 1.500 atxikimendu jaso biharko dittugu, hau da, biztanlerixaren %5 eta horretarako hillebete biko epia eukiko dogu". Agurtu baiño lehen, herri-tarr guztiak bixarko ekitaldira juatera gonbidatu eta animatu zittuen.



## Sahararen aldeko liburu azokia Untzagan

Eibar-Sahara alkartekuak, urtero egitten daben moduan, Gabonak gerturatzierekin batera erabillittako liburuak saltzeko azokia antolatu dabe. Asteburu honetan, zapatuan eta domekan Untzagan egongo dira bigarren eskuko liburuak merke-merke saltzen, egun osuan, goizeko 11:00etatik illuntzeko 19:00etara. Betiko moduan, batzen daben dirua Tindufen bizi diraneri laguntzeko erabilliko dabe.

## Chernobilgo umiendako famelixa billa datorren udarako

Gipuzkoako Chernobilen Lagunak alkartiak datorren urteko udan Ukrainiatik etorriko diran umiak harrera programan hartzeko famelixa barririk billatzen dihardu. Programa horeri esker umiak Gipuzkoako famelixeekin hillebete bi pasatzeko aukeria izaten dabe. Holan, janari osasungarrixa jatiari eta aire garbixa arnastiari esker, Ukrainiako negu gogorrari aurre egitteko defentsak indartzen dittue eta hori oso mesedegarrix da. Harreria egitten detsen famelixa, gaiñera, batzuetan umiak faltan izaten daben famelixa egonkorra be eskintzen detse. Osasunerako Mundu Erakundiak diñuaneez, Chernobilgo zentraletik gertu bizi diranendako ezinbestekua da urtian gitxienez 40 egun handik alenduta egotia. Umeren bat hartzeko interesa dakanak informaziño gehixago jasotzeko aukeria dauka 689 586 277 telefono zenbakira deittuta edo, bestela, [www.chernobilenlagunak.com](http://www.chernobilenlagunak.com) eta [www.facebook.com/chernobilenlagunak](http://www.facebook.com/chernobilenlagunak) orrixetan begiratuta.







## Nagusilan alkartiari aitortza egin detse bere 20. urteurrenari

Udalak Nagusilan boluntarixuen alkartiari omenez egin zetsan abenduaren 2xan, alkartiaren 20. urteurrenaren aitazakixarekin. Pleno aretuan ordezkari politikuak egindako ekitaldixarekin Nagusilaneko boluntarixueri esker ona azaldu nahi izan zetsen, "bi hamarkada honetan musutruk egin daben biharragaittik". Nagusilaneko ordezkariak

plaka bat jaso eben alkatiaren eskutik. Gaur egunian 16 kide dagoz Nagusilanen, baiña zaharri laguntasuna emoteko prest dagozen boluntarixu gehixago gustora hartuko leukiez, premiña haundixa dake eta. Baten bat animau ezkeru, 943820087 telefonora deittuta Nagusilanekin kontaktuan ipintzeko aukeria izango dau.

asteko  
**197**  
 datua

*umeri banatzeko jostailuak lortu dittue Eibar-Ermua Gurutze Gorrikuak. Urteroko kanpaiñiari esker herri bixetako umiak oparixak jasoko dittue Gabonetan. 7.000 euro be jaso dittue, Tenneco-ko bihargiñak oparitu dittuen lanordueri esker.*

## autuan

### Ureztatzeko sistemia

Bixar 10:00etatik 16:00etara Biharrian espaziuan egingo dan taillarrian parte hartzen dabenak landariendako ureztatze sistemia zelan eraiki ikasiko dabe. Ekimena 9 urtetik gorakuendako da. Lehen zatixan lurraren hezetasuna kontrolatzeko proiektua egingo dabe, holan landariak ura bihar daben ala ez jakittek. Ondoren hezetasun sensore bat zelan egin eta informaziñua zelan neurtu erakutsiko dabe. Eta bigarren zatixan Biharrian-en lorategixan txertatzeko sistemia zelan diseiñatzen dan azalduko dabe. Izena emoteko hirikiten@gmail.com helbidera idatzi.

### EGI-ren urteko biltzarra

Astelehenian egin eban urteko biltzarra Eibarko EGIK. Bestiak beste ikasturte politikuaren baloraziñua egin eta 2016/2017 ikasturterako helburuak finkatu zittuen eta ikasturte barrixan, bestiak beste, euren indarra euskerian, kulturari, herrigintzan eta gazte-politiketan ipiñiko dabela aurreratu dabe egikidiak.



Funeraria-Ehortzetxe  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b>                  Funeuskadi Eibar:                  Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b>                  SIGMA Industrialdea                  (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

## Patxi Luz Rodriguez

(1949-IX-19 / 2016-XII-12)



**Urak dakarrena urak daroa.  
 Zure maitasuna gurekin geratzen da.**

## Gaixorik daguezen umieri laguntzeko azokia

AFESD Diagnostiko bariko gaixotasunen bat daken umien alkartiak jostailuak saltzeko dendia zabaldu dau Amañan, Lau Bide tabernaren aldamenian (gozotogixa egon zan tokixan). Urtarrillaren 5era arte egunero zabalduko dabe, astegunetan 09:30etatik 13:00era eta 17:00etatik 20:00etara, zapatuetan 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 21:30etara eta domeketan, barriz, 11:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Gaiñera, bixartik aurrera Ermuko merkatu plazan be postua zabalduko dabe, hori be urtarrillaren 5era arte, astegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta zapatu goizetan 11:00etatik 14:00etara. Eta bixar (egun osuan) eta domekan (goizez) Untzagan be ipiñiko dabe azokia. Salmentari esker lortzen daben diru guztia umiak bihar dittuen tratamenduak (fisioterapia, hidroterapia, hipoterapia, logopeda...) ordaintzeko erabiliko dabe. Bestalde, alkartiak holako arazua daken guztiendako atiak zabalik dittuala gogorarazi nahi dabe. Kontaktuan ipintzeko afesd@outlook.es helbidera idatzi edo 659 124 703 telefonora deitu leike.



Amañan zabaldu daben dendia Lau Bide tabernaren aldamenian dago.

## Txontakuak jardunaldi kulturala antolatu dabe bixarko, DSS2016 egitasmuarekin

La Plazoleta Txontako auzokuen alkartiak, DSS2016 egitasmuarekin bat egin da, bixarko jardunaldi kultural parte-hartzaillia antolatu dau auzuan. Ekitaldixak Ardoraren "Energia Olatuak" proiektuarekin hartutako konpromisuari erantzuten de tsa. Izan be, La Plazoletak "Eibarko industriaren memorixa historikua" izeneko proposamena aurkeztu eban eta Donostian diruz laguntzeko aukeratu eben, beste proiektu batzurekin batera. La Plazoletatik azaldu dabenez, "ekimenarekin herritarrrak, batez be auzuan bizi diranak batzia nahi dogu eta, horretarako, hondatuta daguezen hainbat toki txukuntzeko ekitaldi sinbolikua antolatzia pentsau dogu. Asmua danon artian murala margotzia litzake".



Mikel Goñi "Energia Olatuak" proiektuko zuzendarixa.

11:00etan ekingo detse biharrari. Handik ordubetera, 12:00xetan poesia errezitala hasiko da eta 13:00etan Txontan daguezen muralak ezagutzeko ibilbidia hasiko dabe. Bidian muskia eukiko dabe lagun. Murala zelan egin azaldu eta lana gidatzeko arduria, bestalde, Artefactory enpresiak eukiko dau.



## Ibon Muñoaren aldeko jaialdixa

Eibarko Sarek aurreko hillian hasi eban "Ibon Etxera" kanpainaaren barruan, abenduaren 27rako jaialdixa antolatu dabe, Amañako Jaixak-en babesarekin. Jaialdixa Coliseo antzokixan izango da, 20:00etan, eta parte hartuko dabenen artian Maite Arroitauregi (Mursego), Zaloe Urain (Kokein), Arrate Gisasola, Norton (EH Sukarra), Asier Serrano, Mikel Arrieta, Josu Gil eta Joseba Arrillaga... eta beste hainbat daguezela aurreratu dabe antolatzailiak. Sarrerak aurretik erosteko Depor, Buenos Aires eta Beleko tabernetara jua leike. Txartelak 10 euro balixo dau (5 euro langabetu eta ikasliendako).

## Jaso dabe Sostoaren otarra

Sostoa abesbatzak azaruaren 26xan zozketatu eban otarraren irabazlia argazkixan ikusten dozuen Mateo Gonzalez izan da, 04774 zenbakixarekin. Saridunak pozarren jaso eban sarixa. Zorionak eta on egin!





**TUTULUMENDI**



IDURRE IRIONDO



Erdixan Balbas Debegesako zuzendarixa, Laboral Kutxako ordezkariarekin hitzarmena sinatzerakuan.

**Ekintzaillieri laguntzeko hitzarmena**

Debegesak eta Laboral Kutxak hitzarmena sinatu dabe, enpresa-proiektu barrirak martxan ipiñi nahi daben gure eskualdeko ekintzaillieri finantziaziñua lortzia errazteko asmuarekin. Lankidetzeta-hitzarmena Juan Angel Balbas, Debegesako zuzendari nagusixak eta Juan Maria Osteriz, Laboral Kutxako arduradunak sinatu eben martitzenian eta ekitaldixan Fernando Oruesagasti, Eibarko sukursaleko zuzendarixak be hartu eban parte.

Hitzarmenak finantza-produktu ezberdiñak dakaz jasota eta, horren arabera, bideragarritasun plana Debegesarekin egitten daben ekintzailliak finantziaziñua lortzeko orduan abantailak izango dittue, dirua eskuratzeko baldintza hobiaguak eskinduko detsez eta. Hitzarmenak urtebeterako iraupena dauka, luzatzeko aukeriarekin. Gai horren inguruan gehixago jakin nahi dabenak Debegesara deittuta (943 82 01 10) edo ekintzaile@debegesa.eus helbidera idatzita izango dau horretarako aukeria.

**Errefuxiatuerei laguntzeko ipoiña argitaratu dabe**

Siriako errefuxiatuerei laguntzen detsen "Pasaportes para Siria" (lehenago "Portabebes para Siria") alkartiak liburua berezixa emon dau argittara, hori erosten dabenak alkartasuna eta laguntasuna eskintzeko aukeria izateko. Liburua salduta batzen daben diruarekin Atenasen, City Plazan daguazun 400 errefuxiatuendako ur berua eta janarixa pagatzia nahi dabe. 'Tengo mucha suerte' izenburuko liburua ipoin labur bat da eta euskeraz zein gaztelez erosteko aukeria dago. Informaziño gehixago izateko edo erosteko interneten sartu eta [www.pasaportespara-siria.es](http://www.pasaportespara-siria.es) helbidian begiratu leike.



**M<sup>a</sup> Rosario Capanaga Totorica**  
 1. Urteurrena (2015-XII-21)

*Handia da zuk gure etxean utzitako hutsunea.  
 Baina handiagoa da guk zuri dizugun maitasuna.  
 Beti egongo zara gure bihotzetan.*

ETXEKOAK



# Senegal eta Euskal Herria batzeko jaialdia

**D**omeka, abenduak 18, Etorकिन Nazioarteko Eguna izango da eta, horren aitzakiarekin, Europako erre-fuxiatuen egoera salatzeaz gain, senegaldarren jaialdia ospatuko dugu Eibarren. Izan ere, gure herrian bizi diren senegaldarrek Diapo Lete izeneko kultur elkarteak sortu dute aurten eta domekan euren lehen ekintza hartuko du Untzaga plazak. Mballo Ndiyae eta Rokhaya Diawren gidaritzapean laurogei lagun aritu dira buru-belarri lanean elkarteak sortzeko behar diren baldintzak betetzen eta denon artean adostutako helburuak zehazten. Diapo Letteren asmo nagusia Senegalgo kultura ezagutzera ematea bada ere, bizikidetzak hobetzea ere nahi dute, hau da, tokiko kultura eta kanpoko kulturen arteko harreman positiboak sortzea. Norantza biko integrazioa bultzatzen ahalegintzen dira: Senegaletik datozen harrera informala egiten diete eta euren ohiturei eusten ahale-

gintzen dira, baina horrekin batera euskal kulturara ohitzeko ahaleginak ere egiten dituzte, besteak beste ikasturte honetan abiatu den Ongietorri Berbetan-era egitasmoarekin bat eginda. Hango eta hemengo musikak, janariak eta pertsonak nahastuko dira domekako jaialdian eta herritar guztiak parte hartzera animatu nahi dituzte antolatzaileek.

Egitaraua goizetik hasiko da: 10:00etan ongietorria egin eta jarraian, 10:30ean, Senegalgo pin-txo tipikoen dastaketa hasiko da; 11:00etatik 13:00era musika eta dantza izango dira protagonista, Tu Ku Tun txalapartarien eta Senegalgo dantzak eskainiko dituen Sabar taldearen eskutik; ondoren, 14:00etan, herri bazkaria egingo da, Senegalgo jaki tipikoekin (arroza, arraina eta lekaleekin); eta arratsaldean, 16:00-etan, jolasak hasiko dira eta, jaialdia agurtzeko, 17:00etatik 20:00-etara Senegalgo musika zuzenean entzuteko aukera izango da.



DAL LEN AKJAM CI SEN ANDAKÑUN CI  
SUNUBISBI KONTAN NAÑU SISEN  
TAXAWAY JERE GEN JEFF

ABENDUAK  
**18**  
DICIEMBRE

**SENEGALDARREN JAIALDIA**  
**FIESTA DE LA CULTURA SENEGALESA**

Unzaga Plazan

EGITARAU / PROGRAMA:

- 10:00 / 10:30 Ongietorria / Bienvenida
- 10:30 / 11:00 Senegalgo Pin-txoak / Pinchos de Senegal
- 11:00 / 13:00 TU KU TUN Txalaparta eta SABAR Dantza Senegaldarrak
- 14:00 / 16:00 Herri Bazkaria / Comida Popular
- 16:00 / 17:00 Jolasak / Juegos
- 17:00 / 20:00 Musika zuzenean / Música senegalesa



# Guraso berbalagunak Mirandaolan egon dira



**Aurreko asteko martitzen eta eguenean Gurasoak Berbetan eta Ongietorri Berbetan-era** egitasmoetako guraso eta horien seme-alabak Mirandaolan izan ziren, bertako Olentzerori bisita egiten. Goizean goiz Eibartik irten eta Legazpiko Erreizabal baserrira joan ziren lehenengo. Bertan dago Artzantzaren Ekomuseoa. Ardiak nola zaintzen dituzten eta artilea nola egin eta zertarako erabiltzen den bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten, eta ardi horiek emandako esnerarekin egindako gazta probatu zuten, munduko gaztarik onena omen da! Baserritik bueltan Olentzerorekin izan zuten hitzordua. Lehenengo eta behin ikatza nola egiten den ikasi zuten, eta ondoren, "Burdintxoren" laguntzarekin, Olentzeroren bila abiatu ziren, eta baita agertu ere! Ikustekoak izan ziren umeen aurpegiak, baina baita gurasoenak ere! Ilaran txintxo-txintxo jarri eta gutunak eman zizkioten Olentzerori, argazkiak atera eta pozarren itzuli ziren etxera, abenduaren 25ean zer ekarriko zain!







## Gabonetako otarra 6.314 zenbakiarentzat

Herenegun eguerdian zozketatu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Gabonetako otarra, El Corte Inglesean: 2.000 euroko balioa duen saria **6.314** zenbakiari egokitu zaio. Irabazleak abenduaren 29ra arteko epea (egun hori barne) izango du ...eta kitto!-ra deitu (943200918), idatzi (elkartea@etakitto.eus) edo joateko (Urkizu, 11 solairuartea). Epe horren barruan saridunik agertuko ez balitz, lehen ordezkokoak (**7.943**) jasoko luke saria. Badaezpada bigarren ordezkoa (**0701**) eta hirugarren ordezkoa (**7.348**) ere atera dituzte.

### 1. zenbakia: 6.314

JASOTZEKO EPEA (abenduaren 14tik 29ra arte)

### 2. zenbakia: 7.943

JASOTZEKO EPEA (abenduaren 30etik urtarrilaren 14ra arte)

### 3. zenbakia: 0701

JASOTZEKO EPEA (urtarrilaren 15etik 30era arte)

### 4. zenbakia: 7.348

JASOTZEKO EPEA (urtarrilaren 31tik otsailaren 15era arte)

*Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!*



## B GIDABAIMEN PACK-A



IZEN EMATEA

+

IKASTARO TEORIKOA

+

5 PRAKTIKA

DOANEKO IKASTARO  
PRESENTZIALA LEHENENGO  
20 IZEN-EMAILLENTZAT!



Ikastaro osoa

Praktika osagarriak  
25€ + BEZ

Tutoretza pertsonala

Hasi nahi duzunean

### ERRESERBATU

Elbar: Otaola, 7 (CFP)  
Tlf: 636 93 08 66  
info@elvelocimetro.com  
www.elvelocimetro.com



Belaunaldiz belaunaldiko oinordetza epigenetikoaren gainean tesia egiten dihardu Iraia Muñoa eibartarrak Leioako Medikuntza Fakultatean azken bi urteetan. Bartzelonan Bioteknologia ikasketak egin zituen eta, ondoren, masterra laguntza bidezko ugalketaren inguruan. Azken egunotan prentsa, irrati eta sare sozialetan izan dugu Iraia Muñoaren berri, Unibertsitateko tesiak dibulgatzeko Unibertsitatea.net atariak antolatzen duen "Txiotesia" lehiaketan saritua izan delako. Ikerlari eta zientzialarien lana hobeto ezagutzeko iraiarekin egon gara.

## **Iraia Muñoa, IKERTZAILEA**

# **"Gure gurasoen bizi ohiturek eragina daukate gure osasunean"**



**- Lehiaketari esker izan dugu zure tesiaren berri. Hitz potoloak alde batera utzita, nola azalduko zeniguke tesiaren mamia?**

Epigenetika terminoa orain dela hamar-kada batzuk agertu zen. Laburbilduz, esan daiteke gure bizi ohiturek guregan eta gure osasunarengan eragina daukatela. Ez da berdina dieta garbi bat daraman pertsona edo lipidoetan dieta altua daramana, kirola egiten duena edo kirolik egiten ez duena... Farmakoak, tabakoa edo alkohola aldaketa epigenetikoak eragin ditzaketen beste faktore batzuk dira. Hau guztia gure DNA-n ikusten da, baina ez mutazioen bidez, gure DNA sekuentzia ez baita aldatzen; ez da mutaziorik ematen guk kirol asko edo gutxi egiten dugulako. Gertatzen dena da molekula kimiko batzuk itsasten zaizkiola gure DNari eta, ondorioz, geneen adierazpena beste modu batean erregulatzen dela. Beste modu batean esanda, molekula kimiko horien bitartez gene horiek kontrolatzeko beste era bat ematen da eta gizabanakoen hainbat ezaugarritan aldeak sor daitezke. Beraz, DNaren mutazioek sortzen dituzten gaixotasunez gain, orain badakigu gure bizi-ohiturek eragindako aldaketa epigenetikoak ere gaixotasun askoren sortzaile direla. Aldaketa epigenetiko hauek, gainera, belaunaldiz belaunaldi pasa daitezke, hau da, molekula horiek gure ondorengogengana pasatzea gerta daiteke. Eta nire te-

siaren bitartez, mekanismo epigenetikoak zeintzuk diren aztertzen nabil.

**- Tesiaren bigarren urtea da. Nola iritsi zinen ikerkuntza mundura?**

Bioteknologia ikasi nuenean nahiko karrera berria zen, ikasgai asko genituen (bioreaktoreak, industriara zuzendutako gaiak, bakterien inguruko kultiboak, terapia genikoa, mikrobiologia...). Enbriologia asko gustatu zitzaidan eta masterra laguntza bidezko ugalketaren inguruan egin nuen. Euskal Herrira bueltatzean, Unibertsitatean giza ugalkortasunari buruzko taldea bazegoela jakin nuen. Harremanetan jari nintzen eurekin eta proiektu honi buruz hitz egin zidaten. Oso gustora nago, teknika asko erabiltzeko eta gauza berri asko ikasteko aukera daukat. Oso mundu zabala da, eta lan asko dago egiteko esparru horretan.

**- Zelan ikusten duzu ikerkuntza alorra Euskal Herriko Unibertsitatean?**

Unibertsitateak daukan potentzial guztia bilduta, oso gauza interesgarriak ari dira egiten ikerkuntza arloan. Ikerkuntzan, beste alor batzuetan bezala, diru-laguntzak ezinbestekoak dira eta, azken urteetan, murrizketa mordoa egon da. Murriztu beharrean, bultzateko gauza bat dela uste dut.

**- Lan horretan jarraitzea gustatuko litzazuke?**

Oraindik, tesia amaitzeko bi urte falta zaizkit. Niri ikerkuntza asko gustatzen zait

eta gustatuko litzaidake mundu horretan jarraitzea. Ez da erraza, baina hemen gertzea gustatuko litzaidake. Jende asko kanpora joaten da curriculum betetzera, aukera gehiago daudelako.

**- Twitterren kontua zabaldu zenuen Unibertsitatea.net atariak antolatutako lehiaketan parte hartzeko, eta irabazle-tako bat izan zara.**

Bai, sei txiotan tesia laburtu egin behar zen eta nik txio originalen atalean irabazi dut saria, zirkoaren simila erabiliz. Sare sozialak ez ditut asko erabiltzen, baina gure lana dibulgatzeko modu ona iruditu zitzaidan. 50 parte-hartzaile inguru izan ditu lehiaketak. Uxoá Iñurrieta izan da txiolaririk ulergarriena, eta ni originalena. Lehiaketa hauekin pentsatzen duguna baino gauza gehiago lortzen da. Alde batetik gogoeta sakona egin behar duzu; egiten ari zarena jendeari modu ulergarrian eta laburrean azaltzea ez da bat ere erraza. Zure egunerokotasunetik pixka bat aldentzeko ere bali du, ikutu grazioso eman. Beste alde batetik, dibulgazioaren kontua dago. Horrelako ekimenekin unibertsitatean egiten dena jendeari ezagutzera ematen zaio, eta guretzat ere sarritan baliogarria izaten da, gure aldamenen daudenak zertan dabil-tzan jakiteko. Eta gainera euskaraz. Unibertsitatean ingelesa da nagusi, eta euskera bultzatzeko ere ondo daude horrelako gauzak.



## Armeria Eskolako hiru ikasle saritu dituzte

Kutxa Fundazioak, unibertsitateko ikasleekin egin ohi duen bezala, 2015-16 ikasturteko Lanbide Heziketako ikasle onenak ere saritu ditu. Guztira 32 sari banatu dituzte eta saritutakoan artean Armeria Eskolako hiru ikasle daude: Miren Gisasola Urzelai, Unai Suarez Fernandez eta Oscar Rodriguez Hernandez.

Antolazailleek Gipuzkoako goi-mailako ziklo bakoitzeko espedienterik onena saritu dute eta ziklo bakoitzeko ikasle bakarrari eman diote saria. Sari-banaketa ekitaldia martitzen arratsaldean izan zen, Donostiako Miramongo Zientzia Museoa.



## Soinu-ikasle gazteak bikain Arrasaten

Marisol Arrillagarekin Musika Eskolan soinua ikasten diharduten 22 ikasle Arrasaten egon ziren aurreko asteburuan, Gipuzkoa XXIX. Jaialdian parte hartzen eta handik pozarren bueltatu ziren, hainbat diploma eta dominarekin. Irakasleak azaldu digunez, "ikasleak 9 eta 19 urte bitartekoak dira eta 20 kategoria ezberdinetan lehiatu ziren: bakarka, taldeka... Eurentzat horrelako jaialdian aritzea erronka handia izaten da, besteak beste epaimahai baten aurrean jo behar izaten dutelako. Jaialdira joan aurretik bi hilabete eman dituzte prestatzen eta oso esperientzia polita izan da". Gainera, jaialdira joandako ikasleetako batzuk taldeko kategorian irabazleak izan ziren, urrezko dominarekin eta 300€ko sariarekin.



Saritutako taldea Alaitz Almontza, Mireia Areitio, Erik Arrizabalaga, Ainhitze Lasa, Irati Lasa eta Juliana Morenok osatutakoa da eta Coliseoan, Gabonetako kontzertuan jardungo du.



## Zientzia-edukiak doako aplikazioan

Elhuyarrek zientzia-edukiak euskaraz edonon eta edonoz eskura izateko lehen aplikazioa, ZIENTZIAPP garatu du. Google Play Storen eta App Storen eskuragarri ipini duten doako aplikazioak zientzia-edukiak eskaintzen ditu: albisteak, audioak, bideoak eta agenda, besteak beste, eta horiek guztiak musutruk, gainera. Aplikazioa garatu dutenek diotenez, "zientzia-eduki berriak eskainiko ditu egunero: zientzia eta teknologiari buruzko azken albisteak, bideo dibulgatibak eta audio-artxiboak, informazioa nonahi eta noiznahi jasotzeko, nahieran". Eduki guztiak Elhuyar Zientzia erredakziora aukeratu eta landuko dira. Zientzia.eus webgunean ere argitaratuko dira. Horrez gain, zientzia eta teknologiaren inguruko ekitaldiaren berri ere emango du, Agendaren bitartez.

Iker Elorza Beitia  
 Telf.: 608 30 85 26  
 e-mail: legalbide@gmail.com

LEGALBIDE  
 Finka kudeaketa • Aholkularitza juridikoa • Abokatua

**AZALEA** Edergintza  
 M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua  
 Trenbide Kalea, 3 kia. behea - 20870 ELGOIBAR  
 Tel.: 943 740 310  
 Gorputz eta aurpegi estetika

Abian dagoen negozioa alokatzen da, erretiroa dela eta.

Egun gitxi falta dira Olentzero bisitan etortzeko eta hori nabarmen somatu leike giruan: kaliak Gabonetako argixekin, dendetako eskaparatiak modu berezitan apainduta, normalian baiño jende gehiago batetik bestera erosketak egiten, aspaldixan ikusi bariko aurpegixak be badoiaz sosiguz agertzen... Datozen astiotan herrixan egingo diran jarduera guztiak Gabon usaiña eukiko dabe nahittaez. Bixar bertan Gabonetako apaingarrixak egitteko taillarra egingo dabe Armagintzaren Museuan, duan, 17:00etatik 18:30xetara. laz egindakuaren bidetik, herriko taillarretan erabillittako materixalak erabilliko dittue apaingarrixak sortzeko. Jardueria publiko guztiendako pentsauta dago eta izena emoteko 943 708446 telefonora deittu edo museoa@eibar.eus helbidera idatzi leike.



# Olentzerori ongiatorrixa egitteko irrikitan

## GABONETAKO KONTZERTUAK

Gabonak gertu duguazela eta, herriko musika taldiak kontzertu berezixak prestatu dittue datozen egunetarako. Lehelengo emanaldixa asteburu honetan, **domekan Eibarko Cielito Musika Bandakuak** emongo dabe, 12:30xetatik aurrera Coliseo antzokixan (egurdixaren arabera, kontzertuaren aurretik, 11:15etan kalejira egingo dabe herriko erdialdeko kalietan). Urteko azken emanaldixa izango dana Iñaki Orbegozok zuzenduko dau eta hauxe da preparau daben programia: "Teatro Montecarlo" (pasodoblia, A.P Perello), "Il Triello"



(BSO, E. Morricone; tronpeta bakarlarixa: Julen Rodriguez), "La del Manojito de Rosas" (zarzuela, P. Sorozabal), "Folk Song Suite" (suitea, R. Vaughan Williams), "Baldorba" (abestixa, B. Lertxundi; konp. O de Esteban) eta "Disney Fantasy" (bilduma, konp. N. Iwai). Horren ostian, Musika Bandakuak ez dabe emanaldirik eukiko Errege Kabalgatiarekin urtetzeko ordua ailegau arte eta, Gabonak atzian lagata, urtarrillaren 29xan helduko detse atzera be ohiko martxari, Coliseo antzokixan emongo daben kontzertuarekin. **Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakuak, barriz, eguaztenian** eskinduko dabe emanaldixa, 19:00etan Coliseoan (sarreriak 3 euro balixo dau).


Bestalde, **Sostoa abesbatzak abenduaren 23an** emongo dau Gabonetako kontzertua, Coliseo antzokixan, 22:00etatik aurrera (sarreriak 10 euro balixo dau). Emanaldixa oso berezixa izango dala diñue: "Hasteko, ordutegixa bera da berezixa. Kontzertua beste batzuetan baiño beranduago hastiak, baiña, badaka azalpenik. Izan be, lana dala edo bestelako kontuak tartian, beste ordu batian abesteko aukerarik eukiko ez leukienak be kantatzera etorri ahal izango dira. Eta, horrekin batera, eskinduko dittugun kantuak maixu haundixak idatzittakuak dira eta, horregaittik, abesbatzarendako erronka haundixa izango da. Edozelan be, ilusiño haundixarekin helduko detsagu erronkari".

Eskinduko daben musikiak Viena izango dau ardatz. Bestiak beste Brahms, Schubert eta Beethovenen lanak entzuteko aukeria izango da, batzuetan bakarrik instrumentuak interpretata eta beste batzuetan, barriz, koralaren ahotsak lagunduta. Egitarauaren barruan, Vivaldiren "Gloria" bereziki nabarmendu dabe. Eta, beste batzuetan bezala, "momentu bariatu eta edarrak izango dittuan kontzertu horretan gurekin batera izango dittugu Isabel Laspiur pianuan, Andrea Berbois eta Naroa Garcia biolin eta txeluan, Iñaki Orbegozo eta Ane Milikua tronparekin laguntzen eta Gerardo Rifon organuarekin". Eta, Gabonetako emanaldixak agurtzeko, **Usartza Txistulari Bandakuak abenduaren 24an** emongo dabe kontzertua, Untzagan, 12:30xetan hasitta.

## ASTELENA GABONETAKO HAUR PARKIA

Bixar zabalduko dittu atiak Astelena Gabonetako Haur Parkiak, goizeko 11:00etan, eta hortik aurrera abenduaren 26, 27, 29 eta 30ian zabalduko dabe, goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 16:30xetatik 20:30xetara. Abenduaren 31n, berriz, bakarrik goizetik egongo da zabalik, 11:00etatik 14:00xetara. Eta urtarrillaren 2, 3 eta 4an be zabalduko dabe, ohiko ordutegixan (11:00etatik 14:00etara eta 16:30xetatik 20:30xetara). Azken urtiota-





ko martxan, aurten be Astelena frontoian ipiñiko dabe parkia, Udalaren eta Eibar Merkataritza Gune Irekiaren ekimenez. Parkeko eskintza 2 eta 12 urte bittarteko umieri zuzenduta dago eta sarreriak 3 euro balixo dau (duan, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonuarekin). Anbulatorixoko parkeko parkian txikixendako ipintzen daben tiobibua be gaurtik aurrera erabiltzeko aukeria izango da eta beste barrakak, barriz, datorren barixakuan zabaltzeko asmu dake, Urkizun eta Txaltxa Zelaixan.

Bestalde, El Corte Inglesekuak be programaziño berezixa antolatu dabe Gabonetarako. Eurenara bixar juango dira Olentzero eta Mari Domingi, 17:30xetan, eta nahi daben ume guztiak ikustera juateko aukeria izango dabe, dendako sarreran egongo dira eta. Abenduaren 22rako, barriz, antzezlan musikala antolatu dabe: 18:00etatik aurrera Zirtaka taldiak "Din Dirin Di Mari Domingi" eskinduko dau. Amaitzeko, Meltxor erregiaren bisitia be eukiko dabe, urtarrillaren 3an, 17:30xetatik aurrera.

**MADE IN EIBAR**

Abenduaren 21etik urtarrillaren 5era bittartian egongo da zabalik Eibart alkartekuak urtero sasoi honetarako antolatzen daben azokia. Aurten, barrikuntza moduan, Topalekuan ipiñiko dabe artisauen azokia



eta goizetik zein arratsaldetik zabalduko dabe, 11:00etatik 14:00xetara eta 17:00etatik 20:30xetara. Gabonetako azokiarri aurten "Made in Eibar" goiburua ipiñi detse eta 7 postuk osatuko dabe, danak eibartarren lanekin. Antolatzailliak Eibarko saltoki txikixetako salmentak areagotzeko asmuarekin preparatzen dabe azokia eta, horregaittik, herritarrek euren oparixak eta bestelakuk bertoko artisaueri erostera

animatu nahi dittue, "Gabon honetan be kalidadezko produktuak zain izango dittuzue eta!".

**AURTEN BE EGUNEZ DATOR OLENTZERO**

Olentzeroren kalejira egun argiz egin zan iaz lehelengoz eta, ume zein helduak kanbixuarekin pozik eguzela ikusitta, aurten be holan egingo dabe abenduaren 24an: Olentzerorekin kantatzera juan nahi dabenendako hitzordua 11:30xetan ipiñi dabe, Urkizun. Kalejira be hortik abiatuko da, Arragueta, Coliseo, Errebal, anbulatorixua, Toribio Etxebarria eta Untzaga ibilbidia betetzeko. Betiko moduan, Olentzeroren kalejiria trikitixarekin alaitzen Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako eta Adolfo Jainagaren ikasliak jardungo dabe eta, eurekin batera Eibarko Kantuzaleak eta Kaleetan Kantuz abesbatzak eta Juan



Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasliak juango dira. Kalejiria amaituta, 12:30xetatik aurrera Olentzerok umieri harrerria egingo detse, bestiak beste umiak azken orduko eskarixak zuzenian berari esateko aukeria euki deixen. Bestalde, kartia idatzi nahi dabenendako buzoiak ipiñi dittue Pegoran eta Portalean eta Olentzerori idatzitako gutunak horra bota leikez, abenduaren 23ra arte.

**ERREGE BEZPERAKO DANTZETARAKO TXARTELAK**

Eta Gabonak agurtzen daben Errege Kabalgatia oindiok urruti ikusi arren, urtarrillaren 5ian kabalgataren aurretik Ipurua kiroldegixan egitten dan dantza ikuskizunera juateko txartelak aurretik, abenduaren 28xan banatuko dittue, 09:00etatik 12:30xetara bittartian udaletxeko patixuan. Errege bezperan kiroldegixak hartzen daben ikuskizuna 15:00etan hasiko da eta hiru taldek, Ipurua Dantza Garaikide Taldiak, Ipurua Gimnasia Erritmika taldiak eta Eibarko Balletak hartuko dabe parte. Kabalgatia, barriz, 19:00etan hasiko da, Eibarko Cielito Musika Bandiak lagunduta

**ITZULPEN**  
**ERA GUZTIETAKO TESTUAK**  
**ITZULTZEN DITUGU,**  
 euskaratik gaztelarara,  
 gaztelaratik euskarara,  
 eta ingelesetik euskarara.  
**ZERBITZUA**  
 elkarte@etakitto.com


www.kolorlan.com 667 54 89 16 (Ritxar)  
  
**KOLORLAN**  
 P I N T U R A K

# moda



# arkitektura

*laura albistegi*



## Minimalismoa

**Gauza asko mihizatzea ez da gauza samurra izaten.** Ez al da ba errazagoa bi zatitan apurtutako pitxerra berreskuratzea zati txiki askotan geratutakoa baino? Saiatzeko grina hor dago bai, baina gutxitan lortzen dira norberak ezartzen dituen helburu utopiko horiek. Gehienetan, lardaskeria zihurtatua.

Printzipio hau beste hainbat sektoretan ikusi ditzakegu aspaldi. Mies Van Der Rohe, minimalismoaren sortzaileztat hartutako arkitektoaren esanetan,

dena ondo lotuta geratu arte gauzak kentzea da diseinuari garbitasuna eta eleganzia emango diona. Osotasunak hartzen du garrantzia atal individual ororen gainetik.

Modan ere gauza bera gertatzen dela deritzot. Minimalismoaren jarraitzailea izanik, hau elementu minimo eta basikoak erabiltzeko tendentziatzat ulertuta, zein errezagoa den, adibidez, bi kolore soilik nahastea kolore paletan gehien kontrajartzen diren kolore ezberdinak egoki geratzea baino.

Calvin Klein, Balenciaga, Céline zein Jil Sander dira mugimendu honen inguruko gaur egungo izen handietako batzuk. Apaingarriak baztertuta, kolore kontrasteak landuta, cashmere, artilea edota zeta bezalako materialak erabiltuta, funtzionalismoa, xahutasuna, sinpletasuna zein eleganzia hartzen dituzte xedetzat.

Estilo horretako diseinuek, modaz pasatzeaz urrun gainera, eguneroko buruhaustek sahiestea lortzen dute.

Ostera, monokromatismoa, forma zuzenak, apaingarri eza... aspergarria izan daiteke batzuentzat. Beti egongo da norbait konplexutasunaz haratago pitxerraren zati txiki guzti horiek itsas-tea nahiagoko duena... eta ongiatorria izan dadila!



*nagore fernandez*



**Azkenekoz uda amaitu berri idatzi nuen eta ia oharkabean gabonak ate joka ditugu.** Egunak moztu dira gauak luzatzen ziren bitartean, mendiak hosto iharrez bete zaizkigu eta kaleetan ere begi-bistakoa da Olentzero laster datorrela: prest daude dendetako eskapara-teak, nonahi lentejuelak, argiz jantzita kaleak.

Eta bai, beti dakarte polemika apur bat gabonetako argiek: batzuek hortera galanta direla diote. Beste ba-


## Olentzerori eskaera

tzuek, gastu itzela eragiten dutela. Eta zein itxusiak diren azpimarratu nahi izaten dutenak ere badira. Baina eztabaidan hasi gabe, konturatu al zarete zenbat aldatu diren azken urteetan zehar?

Gaur egun LED motako argiak erabiltzen dira, noski: aurrezteaz gain, mugimendua dutela diruditen diseinu berriak ditugu ikusgai herrian, baita hiru dimentsiotan hazi eta bolumena dutenak ere. Baina ez da denbora asko pasa koloretako bonbilla txikiz osatzen zirenetik, haietako bat itzali edo lehertzen zenean kanpai, pinu edo delakoaren marrazkian hutsune nabarmena utziz...

Urtea amaitzean, argien hutsuneak bete ditugun moduan beteko ditugu gure ahoak 2017-rako asmo onenekin. Nik badut ba proposamen bat: apainga-

riak berritzeaz gain, berriro ditzagun gure ikuspuntu eta jarrerak ere. Elkar ulertzen saia gaitzen. Bizi gaitzen denok lasai gure etxe eta hiri ederretan. Eta inoiz, munduko edozein bazterretan zerbaitek lehertu behar badu berri, koloretako bonbilla bat besterik izan ez dadila, mesedez.







# GABONETARAKO

erosketa **GIDA**

*Zorionak  
eta urte  
berri on!*

## VALENCIAGA



**Bidebarrieta, 12**

**943 20 22 33**

## TXUKUNA

**E. Garate, 1**  
**943 82 13 08**

- Barruko erropa eta pijamak (ume eta helduak)
- Emakumeen erreduktoreak (aukera handia)



- Poltsoak
- Narrua
- Zilarra
- Artisautza
- Bitxikeriak
- Opariak...

## Pitxiak

**Zuloagatarren, 9**  
**943 20 17 40**



Zentro optikoa eta audifonoak



*Zorionak  
eta urte  
berri on!*

- Opariak egiteko aukerarik onena

**J. Etxeberria, 13**  
**943 70 02 30**

- Bono bereziak: Gabonetan opariak egiteko aukera bikaina




**Bidebarrieta, 5**

**943 20 15 47**

## Ditare

30 urte baino gehiago



- Gizon eta emakumeendako barruko arropak
- Azpikogonak
- Mukizapiak
- Mertzeria
- Emakumeen bainujantziak
- Berezitasuna taila handitan!

**Urkizu, 7**

**943 12 73 21**



**San Juan, 1**  
**943 20 33 29**

- Landareak
- Zentru naturalak eta lehorrak
- Etxerako zerbitzua







**J. Etxeberria, 6**  
**943 12 10 07**

- Ume eta gazte moda
- Otiik 16 urtera arte

- Umeendako eta etxerako erropak

# Los Chicos



**Zuloagarren, 5**

**94 694 10 03**

## laguinda

- Erropak eta osagarriak



**Bidebarrieta, 18**    **943 20 84 41**



**Urkizu, 3**

**943 54 36 97**

- Ludoteka-Bebeteka
- Jostailu hezigarriak
- Haur ospakizunak
- Tailerrak



## Aensa

- Bitxitegia
- Erlojudenda



**Untzaga, 8**

**943 20 76 21**




**Estaziño, 3**

**943 10 58 10**

# klaus

- Denda, dekorazioa, erreformak, proiektuak

## Kolorete



**Bidebarrieta, 24**    **943 57 69 41**

- 10 euroko erosketa eginda, automakillaje ikastaroa opari





# Guby

**Birjiñape, 1**  
943 20 28 33  
**Zuloagatarren, 9**  
943 20 12 40



**Bidebarrieta, 8**  
943 05 60 82

*Zorionak eta urte berri on!*

**San Agustin, 4**  
943 20 16 47

- Menajea
- Beira
- Opariak



# Jauregui

- Bidaietarako artikulak
- Poltsoak
- Euritakoak
- Narruzko erroa
- Osagarriak



LEDER



**J. Etxebarria, 4** 943 20 32 90

# baglietto



**Errebal, 21**  
943 20 19 22

- Opariak
- Etxerako osagarriak
- Pinturak

*Zorionak eta urte berri on!*



**T. Etxebarria, 22**  
943 12 72 36



# GU BY

**J. Etxebarria, 2**  
943 20 15 51

- Gusto eta adin guztietako moda



- Betaurrekoak eta opariak denondako

**Ego-Gain, 2**  
943 70 14 08





# Lore artian ospatu dogu aurtengo Euskeraren Eguna



Oin dala urte bi kandelak argittu eben Euskeraren Eguna. Iaz, globuen bittartez, lau haizetara aireratu genduan euskeria, eta aurtengoa loraz bete dogu eguna. **“EUSKERIA EREIN, ZAINDU, EMON”** izan da aurtengo goiburua, eta goiburu hori zekan **horma-irudixa loraz bete** genduan bezperan, abenduaren 2xan. 6 metro luzerako horma-irudixa betetzeko ixa 4.000 lora bihar izan dira, eta hórretatik gehixenak Eibarko ikasliak egin zittuen ikastetxietan, baiña egunian bertan be egon zan lorak egitteko aukeria. Ume eta heldu asko gerturatu zan Untzagara, nork bere loria eskuan hartuta, horma-irudixan



sartzeko gogoz. Behin horma-irudixa osatuta, eta “Lorettoa” kantuari Exkixu taldiak egindako bersiñuakin dantza egiñ eta gero, Txaltxa Zelaxan jarri zan, ta han egon da

egun batzutan ikusgai. Euskeraren Eguneko ospakizunak, baiña, goizian hasi ziran. 10:00etan hasi eta 15:00ak arte ikasliak ohikua bihurtu dan **Mintzodromuan** jardun ze-

ben, hainbat gairen inguruan taldeka berba egitten. Eta hurrengo egunian, **abenduak 3**, Euskeraren Eguna, **“Andonik mugitzen nau”** erromerixak dantzan jarri zittuan bertara hurbildu ziranak. Azkeneko urtiotan euskalgintzan biharrian diharduten taldiak, Udalaren babesarekin, hartu dabe Euskerian Eguna antolatzeko arduria. Pozarren agertu dira, *“inguan be eibartarrok euskeraz bizi nahi dugula ozen aldarrikatu dogulako. Eskerrak emon nahi detsegu herritarrei emon daben erantzunangaittik, baiña ez dogu ahaztu bihar ez dala egun bateko kontua, euskeria egunero erabilli bihar dogu-eta”*.





## Xabier Amurizak “Ondo egindako lanaren” eskerrona jaso zuen Armeria Eskolan

Armeria Eskolako programa horretako zazpigarren saioa egin zen abenduaren 2an, Euskeraren Egunaren bezperan, eta solasean jardun zuten Amurizak eta okasiorako berak hautatutako Maialen Lujanbiok. Armeria Eskolak, modu horretan, “euskal kulturaren suspertzaile eta eragile handiak egindakoa eskertu, omendu, gorai-patu eta errekonozitu” nahi izan zuen. Bertsogintza eta beste hainbat sorkuntza eredutan erreferentea den Maialen Lujanbio izan zuen lagun horretan.

Ekitaldia hasteko, Amurizak “hunkituta” zegoela adierazi zuen, “lagun eta ezagunekin topo egitean, eta adinak dakarren biguntasunaren” eraginez. Onartu zuen, hala ere, Ondo Egindako Lanaren errekonozimendua “txar guztia kenduta, jakina!”.

Lujanbiok Xabierren haurtzarotik hasi nahi izan zuen haren ibilbidea eta baita azken honen onartu ere “bertara itzuli” dela berriro: “Gainera, inoiz joan barik bueltatu naiz”. Sasoi hartan bizi izan zituen “bakardadea eta as-mamena” azpimarratu zituen Amurizak. Aholkuak emateko aprobetxatu zuen: “Umea berez gregarioa da eta, horregatik, behartu egin behar zaio orduak bakarrik ematera. Zaila da berak bakardade hori hautatzea, baina bakartasunean derrigortuta zaude pentsatzera eta hori aberatsa da”. Hala ere, onartu zuen bere kasuan “milaka inbentzio egin izana, inolako emaitzik gabe”.

Seminariokoa sozializatzeko balio izan zion Etxanokoari. “Etxera itzultzeko grina” gogoratzen du sasoi hartatik, gaur egundaino irauten diona. Munduan zehar ibiltzeko ilusio handirik izan ez duela esan zuen, “bizitza merkearen” alde egin duela. 14 urterekin “askatasun morala” eskuratu zuela esatearekin batera, sinesten du “pentsamentua dela zure nortasuna”. Errebeldia puntua ere orduko du: “Pentsamendu txarrak etorri egiten dira, berez; nik bakarrik moderatu egin ditzazket”. Horrela baztertu zituen kezka moralak Xabierrek.

1965ean apaiztu zen eta “1972ra arte hemen izan diren sasoi esplosiboan” egokitu zitzaizkion bizitzea: “Iraulia izan zen hemengo, ez iraultza, baina urte gutxitan hainbestekoa izan zen...”. Sotanaren presentziak sortzen zuen autoritate menperatzaileaz konturatu zen eta, “errebeldetza kontziente” bihurtuta, Gogor taldean sartu zen. “Bagenekien non amaituko genuen” esan zuen, baina sasoi hartako bertso-esko-



latakoek oraindik ere “zu etortzeko desiatzen geunden” entzuteak guztiz betetzen du Amuriza. Kartzelaldia *Hiztegi errimatua* egiteko aprobetxatu zuen (hirugarren argitalpena kaleratu da Durangoko Azokan). Berrendako gorde beharrean, “senez zabal- tzeraz bultzatuzalea naiz eta ikasitakoa transmititu behar dela” zioen Armeriako ekitaldian. “Gure ondasunak banatu behar diren” asmo horrekin, Azkueren hiztegiari buelta eman zion, atzekoz aurrera.

### Maialen Lujanbio, justizia sozialaren ikur

“Euskaldunok baditugu mito batzuk eta horiekin apurtu behar dugu. Askotan, gainera, ignorantziak baliatzen dira halakoak sortzeko”. Horien artean aipatzen ditu, bertso-laritzan sartuta, berezkoa/ikasitakoa dikotomia, euskaldun berriarena eta emakumearena. Eta, horrekin lotuta, Maialen solaskideak Euskal Herriko txapela janztea guztiz mesedegarria izan zela esan zuen: “Ignorantzia guztiekin amaitzeko balio izan zuen”.

Lujanbiok “liburu zoragarri eta mikatza” moduan definitu zuen *Enaz*, banaz-en inguruan jardun zuten gero. Solaskide eta aurkezleak Xabierrek bere ideiekin duen sinismena goraiatu zuen, “asko ulertu ez arren, berea den neurrian” eta, adinean aurrera joanda ere, berritzailetzat jo zuen bizkaitarraren jarduna, “askotan korrontearren kontrakoa, egoskor”. Amurizak bere postura defendatu zuen: “Masifikazioa tentela delako gehiengotan. Idazle moduan ez dut arrakasta askorik

izan, baina jarraituko dut: lehen obligazioa zena orain gozamina bihurtuz”.

Saioaren azken zatian Maialenek Xabierren kezkei zabaldu zien atea eta zerk pizten dion ilusioa galdetu zion. Euskeraren inguruko galderak ziren batez ere. Erantzunetan neke moduko bat nabaritu zitzaion Amurizari: “Zurrumbilotik urrutiratzen nabil eta ez zait axola moduan bizitzeko asmoa dut. Badakit ez dudala eraginik. Zer egin behar dugun euskerarekin? Hitz egin! Sentimenduek ez dute ezer egiten. Euskera galtzea baino pena gehiago ematen dit ni hil beharra, baina ez naiz triste bizi. Mundua akabatuko da hiltzen naizenean; jaiotzen naizenean ez zegoen mundurik. Euskera bada- kit ni bizi naizen artean biziko dela”. Baina ez du inolako asmorik mitoak hausteari lagatzeko: “Euskerak batzen gaituela? Hizkuntzaga- tik ez du merezi sufritzea. Erabaki eskubidea? Erabaki pertsonala da, ez kolektiboa, ez da inertziaz egiten. Hil eta jaiotzen ez da kolektiboan egiten. Izan gintezke independenteak, euskaldunak izan gabe; eta baita euskaldunak ere, independenteak izan barik. Azken batean, zaila dugu independenteak izatea; zailago, sozialistak; eta, zer esanik ez, euskaldunak! Euskera galtzen bada, agonia ederra izan de- zala, besterik ez diot opa!” esanez amaitu zuen solasaldia. Hala ere, ondo aprobetxatu zuen Maialenen figura nabarmentzeko, “justizia sozialaren ikurra delako bera, egiten diharduen ibilbidean eta txapela janzterakoan gure artean eman den gertaera politiko eta sozial handiena suertatzen ari delako”.

Bolunburu Memorialak 67. edizioa beteko du aurten, domeka goizean Olabeko zelaian jokatuko diren probekin. Gipuzkoako Txapelketa jokoan izango duen proba horrek orain dela 100 urte, 1916an, Luis Alejo Bolunburu eibartarrak Gipuzkoako lehenengo kros txapelketan lortutako garaipena gogoratuko du. Donostian jokatu zen lasterketa hura eta Bolunburuk Jose Mari Ugalde eibartarrari hartu zion aurrea. Domekan, azkeneko urteko egitarauari jarraituz, bederatzi proba izango dira guztira, 10:30ean hasiko den egitarauan.

**E** guazten arratsaldean aurkeztu zuten Udaletxean orain dela mende batera eramaten digun aurtengo Bolunburu Memorial berezia. Han izan ziren, proba antolatzen duen Eibarko Klub Deportiboko ordezkariekin batera, Pablo, Bolunburu senitartekoen izenean; Jon Ormaetxea, Gipuzkoako Federazioa ordezkatzan, eta Alberto Albistegi Eibarko zinegotzia. Erakundeetako ordezkariak harrotasuna erakutsi zuten horrelako proba baten alde egin beharreko ahaleginarengatik eta Klub Deportiboko antolatzailleek ez zuten aukera galdu eskerrak emateko Bolunburu senitartekoei urte berezi honetan 120 argazkiko fondoa euren eta Ego Ibarraren esku laga izateagatik, *“modu horretan sasoi bateko irudi grafikoak berreskuratuz ahal izan ditugulako”*. Horietako irudi batzuk laguntzen dute artikulu hau ere.

#### Bederatzi lasterketa

Igor Amorrosta Klub Deportiboko Atletismo batzordearen presidentek aurkeztu zituen domeka goizean Arraten izango ditugun bederatzi lasterke-



## Bolunburu Memoriala: inoiz baino bereziagoa

ten ezaugarriak (euretako lauk federatuen arteko txapelak izango dituzte jokoan), eta errepasoa egin zien gertutik jarraitu ditzakegun parte-hartzaileen zerrendetako izen entzutetsuei ere. Federatuen mailako Gipuzkoako Txapelketa berriro Eibarrera ekartzea abantaila handia da *“bai ikusleei begira eta, zer esanik ez, parte-hartzaileen arloan”*.

10:30ean hasiko da jardunaldia Olabeko zelaian eta, 3.800 metroko distantzian, junior mailako

neskak, kadete mailako mutilak eta beterano mailako gizonetakoak proba berean ikusteko aukera izango da. Handik 25 minutura, 10:55ean, goizeko bigarren lasterketa hasiko da: hor, 2.800 metroko distantzian, kadete eta jubenil mailako neskek eta beterano mailako emakumezkoek hartuko dute parte.

11:15ean hirugarren lasterketari emango zaio hasiera eta hor jokoan izango da emakumezkoen arloko proba nagusi-

siena. 5.100 metroko distantzian, emakumezko seniorren eta promesen ordua izango da, eta eurekin jardungo dute jubenil eta junior mailako mutilek. Antolatzaileen esanetan, *“Ainhoa Sanz izan daiteke izen aipagarriena, orain arte jokaturako proba biak, Irungoa eta Ordiziako Oiangukoa irabazi baititu”*. Jarraian, goizeko laugarrenean, gizonetako arloko proba nagusiaren hitzordua izango da. 11:40an hasiko den lasterketak 8.500 metro izango ditu eta seniorrek eta promesek ekingo diote. Horko izen nagusiak *“aurrera proba bietako irabazleak dira, Jose Antonio Blanco eta Chakib Lachgar, ahaztu barik Ibon Esparza ere gure artean izan daitekeela”*, Amorrostaren esanetan.

12:20tik aurrera eskola mailako lasterketak jokatu dira: ordu horretan infantil mailako neskena, 1.600 metroko distantzian. Handik ordu laurdenera, 12:35ean, infantil mailako mutilena, 2.400 metrokoan. Jarraian alebinen ordua izango da: neskek hartuko dute parte lehenengo, 12:50ean hasita 1.200 metro betetzeko; eta



Orain 100 urte inguruko irudian, Luis Bolunburu eskuman.



mutilak jarraian, 13:05ean irten eta 1.600 metro egiteko. Goizeko egitarauari amaiera emateko, 13:20an benjaminen proba izango da, 600 metroko distantzian. Antolatzaileek diotenez, "herri mailakoa izaten da beti, ikastetxe guztien parte-hartzearekin, eta krosa zer den ezagutzeko oso aproposa izaten dena". Eibarko ordezkariak dagokienez, "Julen Teran juniorretan eta Aitziber Urkiola dira euren probetan aukera gehien dituztenak".

### Luis Alejo Bolunburu

Gure herriko atleta handi hori 1898an jaio zen eta Izarra eta Los Trece klubetako elastikoa-ekin hartu zuen parte. Klub Deportiboarekin parte hartzeko aukera gutxi izan zuen Eibarko klub hori 1924an sortu zelako eta, horrez gain, gazte hil zelako. Eibartarrak 1916an eta 1918an jokaturako Gipuzkoako lehenengoko kros txapelketa biak irabazi zituen (1917an ez zen jokatu). Orain dela justu 100 urte, beraz, 1916ko abenduaren 24an irabazi zuen aipaturako lehen txapelketa hori, Izarra klubarekin, eta Ugalde herrikidea baino hiru segundo lehenago helmugaratuta. Lasterketa Donostian jokatu zen. Gipuzkoako Atletismo Federazioa sortu zen urte horretan bertan (sortzaileen artean izan zen Manuel Orbea, Wenzeslao Orbearen semea), urte hartako azaroaren 16an jokatu zen "Igeldoko Itzulia" ere eta hor Ugalde eibartarrak -hau ere Izarra taldearekin- irabazi zuen,



1962an, Ipuruan. Gipuzkoako Lehenengo Kros Txapelketa Eibarren jokatu zen. Palentziako Mariano Harok irabazitako proban, gero Tokioko Olinpiadan izan zen Fernando Aguilarrak jantzi zuen Gipuzkoako txapela.

Luis Alejo Bolunburu hirugarren izateko. 1917an Euskal Herriko 5.000 metroko marka ezarri zuen Bolunburuk, 16 minutu eta 29 segundorekin. 1918ko urtarrilaren 6an Gipuzkoako bigarren txapela jantzi zuen, orduko hartan Los Trece klubaren kamisetarekin. Eta martxoaren 3an hirugarren sailkatu zen Espainiako Kros Txapelketan, taldeka Gipuzkoa garaile izan zen proban. Eta 1919an Bolunburu Espainiako kros txapelduna ere izan zen taldeka, Bartzelonan jokaturako proban.

Bai krosean bai pistean Gipuzkoako txapelduna izan zen atleta handia bere onenean zegoenean deitu zuten Marokkoko gerrara eta han hartutako gaitasun batek hil zuen. Bere sasoiako Elgoibarko Juan Murgertza atleta handiarekin ere lehiatu zuen hainbat probatan.

Eta ez zen atleta bakarra izan familian, Krispulo anaia ere maila politean jardun zuelako kirol modalitate horretan.

### Herriatik Arratera

Bolunburu Memoriala 1945ean jaio zen eta, Jesus Gutierrez historialariak gogoratzen duenez, "enpresei esker antolatutako orduko probetan, enpresek dirua eman beharrean fabrikatzen zutena ematen zuten: gela batean sari guztiak ipini eta, atletek helmugaratu ziren ordenean sartuta, gustokoa zuten saria hartzen zuten". Saria jasotzeko modu berezia hura! Hasierako urteetan herriko kaleetan jokatzeko Memoriala eta gero ibilbidea aldatzen joan zen, urteen poderioz. Gutierrezek gogoratzen duenez, "1956an Toribio Etxebarriatik hasi zen, 1961etik aurrera Ipu-

ruako foball zelaia hartu zuen lekukoa, 1968an Arrateko zelaietara igo zen eta Mariano Harok berak ere Arraten irabazi zuen 1974an. 1982an ibilbide berezia izan zuen, Aixolako urtegiari jokatu zelako, eta 1983tik aurrera Olabeko zelaietan jokatu izan da. Urte horretan Martin Fizek irabazi zuen, 20 urterekin eta, berak gogoratzen duenez, kobratu zuen lehen aldia izan zen". Asier Cuevas eibartarra nagusitu zen orain dela sei urte eta bada beste eibartar bat horko irabazle zerrandan: Simon Aldazabal da bera, 1940. hamarkadaren amaieran.

### Senitartekoen fondoa

Aurtengo edizioarekin batera dator, "altxorra" ere berreskuratuko dugu Bolunbururen senitartekoen Ego Ibarren eta Klub Deportiboaren esku lagatako fondoari esker. Digitalizatutako argazkiekin batera, "sasoi hartako dominak, kartelak, egunkarietatik moztutakoak, kros-liburuxkak, liburuak, kromoak... 1916tik 1925era artekoak gehienak" denetarik dago bilduma horretan. Krispulo Bolunburu bera ere Eibarko txapelduna izan zen infantil mailan eta haren senitartekoen bildutako materiala "eibartarren mesedera-ko" eskaini nahi izan dute.



Bolunburu Memorialaren aurtengo edizio berezia herenegun aurkeztu zuten udaletxean.



## Sariak Jainaga eta Larreatarrentzat Gipuzkoako Atletismo Galan

Aurreko asteko eguenean Musikenen egin zen Atletismo Galan Odeï Jainagak saria jaso zuen azken denboraldian junior eta absolutu mailan lortutako Gipuzkoako markengatik. Berarekin batera sari-tuak izan ziren Cristina eta Naiara Larrea ere, Odeiren ama eta izeba, atletismo munduan egindako ibilbidearengatik. Azken egunotan gure artean izan den sir Sebastian Coe IAAF-ko presidentearen esku-

tik jaso zituzten sariok, goiz horretan Anoetako belodromoan jokaturako probetako irabazleek moduan.

Eibarko Klub Deportiboko atletak lan bikaina egin zuten goiz horretan, euretako asko podiumetan izateraino. Imanol Egidazuk urrezko domina eskuratu zuen 60 metroko proban eta zilarrezkoa 600ekotan, Miren Urizar eta Leire Martin lehenengoa eta bigarrena izan ziren 60 metrokoan,



eta oso partaidetza ona izan zuten 1.000 metrotakoan Gorka Kareagak eta Jone Acuña euren serieak irabazi zituzten.

Eta infantiletan Maggi Tejada hirugarrena izan zen eta finalean izan ziren Naia Gonzalez eta June Arosa.



## Gabon Traila egingo dute hilaren 24an

Datorren asteko zapatuan, Klub Deportiboren egoitza aurretik irtenda, urtea agurtzeko ohiturarekin jarraitzeko aukera izango dute beste behin mendi korrikalari eta mendizaleek. Gabon Trailaren hirugarren edizio hau bertatik irten eta bertan amaituko da, bitartean 15 kilometroko ibilbidea eginez. Antolazailen esanetan, "ertaineko zailtasun maila du, gutxi gorabehera hiru orduetan egin daiteke eta gaintu beharreko desnibela 900 metrokoa da". Goizeko 08:30ean irtengo dute eta aukera izango da motxila Deporren lagutzeko. Ibilbidea honako hau izango da: Depo-

rretik abiatuta, Ardantza, Itzioko aparkalekua, Arrajola, Sosola, Urko, Ixua, Usartza, Akondia, Garagoitxi, Kalamua, Aizketa, Txabola Pagola, San Pedro ermita, Santa Kurutze, Naiorbe baxerria, Asua-Erreka, Urkizu, Errebal eta Deporrera heltzeko. Aurretik Gabon Traila egin ez dutenei probatzeko gonbidapena egiten zaie, "gozatzeko modukoa delako. Ibilbidea polita eta erraza da, sasoiari ez egonda ere ez da derrigorrezkoa dena korrika egitea (mendiko lasterketetan oinez ere egiten da) eta geldialdiak egingo ditugu, arnasa hartzeko eta argazkiak egiteko".

## Gimnastek denboraldia agurtu zuten

Ipuruako senior mailakoek Espainiako taldekako txapelketarekin agurtu zuten denboraldia Murtzian. Ez zuten egun onena izan eta, ariketetan izandako zehaztasun faltak, sailkapeneko 20. postura eraman zituen eibartarrak, guztira parte hartu zuten 42 talderen artean. Behin federatuen denboraldia amaituta, amateur eta eskola mailakoen ordua hasiko da urtarrilean.

### Arkua eta Igeriketa

Bihar bi lehiaketa jokatu dira Ipurua kiroldegian. Goizez, 11:00-etan hasi eta 13:30era arte, XX. Liga Arkulariak arku-jaurtiketa torneoak jokatu da. Eta arratsaldean XXVIII. Gabon Koparen hitzordua izango da igerilekuan; hori dela-eta, igerilekua itxita egongo da 16:00etatik 20:00-etara. Bi lehiaketa bikain, beraz, kirol modalitate horietaz gozatzeko.



**ALAZNE,**  
**zure irrifarrea betirako**  
**egongo da gurekin.**

KAFEKO ZURE LAGUNAK







## Azkargortak finalerdietarako txartela eskuratu du

Aurreko asteko barixakuan Astelenan jokatutako jaialdian, Gipuzkoako Errendimendu banakako txapelketaren barruan, Eibarko Klub Deportiboko bi ordezkari jokatu zituzten final laurdenetako partiduak, biak ere infantil mailakoak. Lazkaoko ordezkarien aurkako partiduak jokatu eta gero, Azkargortak aurrera egitea lortu zuen eta Sanchez, ordea, bidean gelditu zen. Azkargortak bihar izango du finalerdiko

partidua Legazpiko Urbeltz frontoian 19:00etatik aurrera bertako Ezamaren aurka. Aipatutako partido horretatik aparte, eskolarteko txapelketaren barruan, Zubizarreta eta Fuentesek osatzen duten bikoteak Arrasaten izango du hurrengo erronka, bertako Uarkape frontoian, arratsaldeko 17:30etik aurrera. Aldameneko argazkian, ezkerretik hasita, Azkargorta eta Sanchez.

## Gabonetako oporren aurreko azken jardunaldia foball-zaletuan

Garajes Garciak ihes egin du sailkapenean aurreko asteburuan jokatutako 11. jardunaldiaren ostean. Lehenengo itzulia amaitzeko bi jardunaldiren faltan, zazpi puntuko aldea ateratzen dio Azkena Adahiri eta hamarrekoa Durangori. Azken jardunaldian 1-0 irabazi zion azken horri, azken denboraldiko txapelkunari, eta bihar goizeko 09:00etan jokatuko den partiduan Azkena Adahiri irabazten badio, esan genezake titulua eskuratzeko borroka inoiz baino lehenago erabakiko dela. Liderrak 10 partidu irabazi ditu orain arte eta bakarria galdu, jardunaldi guzti horietan zazpi gol bakarrik jasota. Sailkapeneko beste puntan dagoen Slow XOK-ek, bestalde, beste 10 galdu ditu eta bakarria berdindu. Asteburu honetan jokatuko den 12. jardunaldiaren ondoren, hiru asteburutan ez da jardunaldirik izango eta hurrengo, lehen itzulia amaitzeko azkena, urtarrilaren 14 eta 15eko asteburuan jokatuko da.

## Klub Deportiboak txirrindulari taldearekin jarraituko du denboraldi berrian

Taldea desagertzetik gertu izan arren, denboraldi berrian ere Eibar Energia Hiria - Debabarrenako elastikoa inguruko errepideetan ikusteko aukera izango dugu. Eibarko Klub Deportiboko batzordeak hainbat oztopori aurre egin die berriro ere eta 23 urtetik azpiko elite mailako taldea aterako dute, inguruko eta Gipuzkoako 15 txirrindularirekin. Dagoeneko lehiaketan sartua dugu **Onditz Urruzmendi, pista-ko Bio Racer Sariaren** hirugarren jardunaldia jokatuta sailkapen orokorreko bigarren postuan, Donosti Gaineko Igor Arrutirengandik hiru puntura bakarrik. Eibar Energia Hiriko ordezkaria lider izan zen ere, bigarren jardunaldiaren amaieran, puntuazio modalitatean irabazi eta gero. Anoetako belodromon jokatutako hirugarrenean Urruzmendi hirugarren sailkatu zen, bai



*Urruzmendi igeldotarra ohituta dago txapelak irabaztera.*

scracht-ean eta baita puntuazioan ere. **Ziklo-kross modalitatean**, bestalde, Eibarko Klub Deportiboko **Mikel Mujikak** zapatuan Asteasun debutatu zuen elite mailan, eta 36. postuan amaitu zuen Ismael Estebanek irabazitako proban; domekan, nazioarte mailako proban, 45. izan zen Stan Godrie herbeheratarra gailendu zen lasterketan.

**“Betirako izango zara gure buruan, gure bihotzean, gure artean. Maite zaitugu, Alazne!”**

**ZURE LAGUNAK**



**ALAZNE, zure gelako lagunaren partez:**

**“BETI GUREKIN ERAMANGO ZAITUGU”  
— 8. B —**





argazkia: Julia Pajares



## ITZIAR SAENZ DE OJER (Bazen Behin)

# “Harreman erotikoetan bakoitzaren desira zein den hartu behar da kontuan”

Abenduaren 20an, martitzenean, “Sexijentziak askatuz” monologoa ekarriko du Kultu tabernara Bazen Behin Clown taldeak. Taula gainean pertsona bakarra, Itziar Saenz de Ojer egon arren, atzean 12 urteko ibilbidea duen taldea dago. Clowna eta umorea gai serioak tratatzeko tresna ezinhobeak direla erakutsiko dute, eta harreman erotikoen gainean ematen diren rol eta ikuspegi ginekoko gogoeta egitera gonbidatuko gaituzte. Antzezlanaren Arrate Kultur Elkarteak antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean eta 19:00etan hasiko da.

- 25 emanaldi inguru eman dituzue orain arte “Sexijentziak askatuz” monologoarekin. Nolakoa da jendearen erantzuna?

Clownak daukan goxotasunarekin eta umorearekin pertsona bakoitza bere sexualitatearen jabe izatearen garrantzia lantzen dugu, eta pertsona eta ikuspegi desberdinengana iristea lortu dugulako oso pozik gaude: institutuak, zaharren egoitzak, gaztetxeak... Gai serioak lantzeko tresna onak dira clowna eta umorea. Donostiako Poltsiko Antzerki Lehiaketan 2. saria lortu genuen, eta honek bultzada handia eman digu.

- Taula gainean zu bakarrik azaltzen zara. Zer aurreratu dezakezu egiten duzun lanari buruz?

Pertsona bakar bateko clown antzezlan da. Pertsonaiak orgasmorik ez daukala azaltzen du, eta bere arazoari aurre egiteko zelako gauzak egin dituen eta zeinekin hitz egin duen azaltzen du: laguna, ama, sexologoa... Beste pertsona horien papeira ere egiten du. Pentsarazten duen lana da, sexu harremanetan espektatibak betetzen ez direnean zer sentitzen dugun isladatzen da. Lehen sexua tabua zen; gaur egun, berriz, gauza arraroak ez badituzu egiten arraroa zarela ematen du. Sexuan

ez dago gauza normal edo ez normalik, bakoitzak bere benetako desira hori zein den hartu behar da kontuan. Zuzendari lanak Peio Arnaezek egiten ditu, Mentxu Arrieta psikologo eta sexologoaren laguntzarekin. Sexune sexologia elkarteko aholkularitza ere izan dugu.

- 2004an taldea sortu zenutenetik arlo desberdinetako kideak pasatu dira.

Psikologoak, sexologoak (neu ere sexologoa naiz), irakaskuntza mundukoak, musikoak... Mezu soziala daukaten lanak egiten ditugu: bullying-a, transexualitatea, suizidioa... guztia modu ludiko eta dibertigarrian.

## Untzagako bazkideen erakusketa

Untzagako jubilatutako bazkideek puntuz egindako zein jositako lanekin erakusketa zabaldu zuten martitzenean. Abenduaren 20ra bitartean egongo da ikusgai, astelehenean barixakura 19:15etik 21:15era eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara. Horrekin batera, martitzenera bitartean Imanol Larrabeitiren margolanak ikusteko aukera izango da oraindik.

Bestalde, Untzagako jubilatutako abesbatzak emanaldi bi eskaini ditu egunotan: martitzenean Donostian, San Vicente elizan abesten egon ziren eta eguaztenean, berriz, Mutrikun kantatu zuten, Gipuzkoako XVII. Abesbatzen Topaketaren harira antolatutako emanaldian.



## Irakurleak ederto egon ziren Joxe Mari Iturralderekin


Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurketa klubaren abenduko saioan Joxe Mari Iturralderekin "Perlak, kolpeak, musuak, traizioak" liburuari buruz jardun zuten berbetan. Martitzenean aztertu zuten nobela Paulino Uzkudun eta Isidoro Gaztañaga boxeolari gipuzkoarren gainekoa da eta irakurleak primeran pasatu zuten horren inguruan berba egiten.





## Jesus Belaustegiren erakusketa Topalekuan

Domekara arte egongo dira ikusgai eta salgai Jesus Belaustegiren artelanak Topalekuan, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan. "Xumetasunaren xarma" izenburuko erakusketan estilo ezberdinetako zeramika lanak eta egurrak egiten dute bat eta ohiko ordutegian bisitatu daiteke: gaur arratsaldean, 19:00etatik 21:00etara eta bihar eta etzi, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.



Beatriz Alkorta



## Bost argazki-erakusketa herrian

Klub Deportiboko argazki taldeak antolatuta, hainbat erakusketa daude zabalik herrian. Hileroko martxan, ohiko tabernetan argazki-bildumak ipini dituzte ikusgai: abenduaren 31ra arte, udalaren eskutik egin den Argazkilaritza Digitala ikastaroko ikasleen lanak Depor tabernan ikusgai egongo dira; El Ambigú tabernan, berriz, Bakarne Elejalderen lanak; eta Portalea jatetxean, Esteban D'Azuarenak. Horrez gain, El Corte Inglesko erakusketa aretoan Jose Luis Irigoienen Indiako irudiak ikus daitezke. Eta urtarrilaren 8ra arte, Deporrek argazkilaritza taldekoen erakusketa kolektiboa hartuko du Portaleko erakusketa aretoak, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

## Munlet, zuzenean Belekon

Gaur 21:00etatik aurrera Munlet taldeak kontzertua emango du Beleko tabernan. Mendaroko taldeak 2002az geroztik musika elektronikoa, punka eta esperimentazioa nahasten ditu eta gaurko emanaldian lanik berriena, "Chupacabras" izenekoa aurkeztuko du.



## Trio Medianocheren disko berria

Datorren asteko egunean (hilak 22), 20:30ean hasiko da Coliseoan Trio Medianoche taldearen emanaldia. Pedro Bartra eta Jesus Mari Bastida eibartarrek eta Donostian bizi den Bernardo Aguilera boliviarrak osatutako hirukoteak "Nuestras pequeñas cosas" disko berria aurkeztuko du. Sergio Sanabriak lagunduko die arparekin eta kontzertua EITBK grabatuko du, aurrerago emititzeko asmoz. Sarrerek 12 euro balio du.



## Liburu aurkezpen arrakastatsua

Eguaztenean aurkeztu zuen Iratxe Gimenez Hermosa eibartarrak "Gotas" bere lehen liburua Portalean, Felix Morquecho kazetariak gidatu zuen ekitaldian eta jendetza batu zen ikastaro gelan. Egileak berak argitara eman duen liburua hiru atal nagusitan dago banatuta: "Gotas" (12 kontakizun), "Gotas extrañas" (beldurrezko bost ipuin) eta "Gotitas" (umeendako bi ipuin).





UNAI ARTETXE

**24/12**


Handitan totero izan nahi dut. Edo bonbero. Edo mediku, futbolista edo albaiari. Tira, abeslari ere izan nahi nuke. Edo horiek denak batera. Ni handia egiten naizenean, astronauta izango naiz. Seguru.

Txintxoia izan dela-eta baloia ekarri dio Olentzerok lkerri. Zitzu bizian jaitzi da parkera aitarekin, futboleko botak jantzita. Han da Nahia, Kattalin izeneko panpina berria orrazten, Garazik ezpainak margotzen dizkion bitartean. Iurgi saskibaloian ari da, bera baino handiagoa den baloia zakarrontzian sartu nahian. Bertan kateatu du Nikolek gomasaltoan ibiltzeko goma, eta hor ari da algarra bizian, gurasoen gozamenerako. Oihan txikiak autoa bilatu du gezurrezko zuhaitz distiratsua azpian, eta etxeko punta batetik bestera ari da, pareta guztiak apaintzen edo. Aldameneko etxean ibilbide antzekoa egiten ari da Izaro, bere patina arroxaz lagunduta, soineko berria jantzita lراتi begira duela.

Urtean zehar txintxoago edo bihurriago izan, Olentzero guzti-guztiekin oroitu da beste behin, eta denak egin ditu zoriontsu. Ez da konturatu, ordea, berak ekarritako opari guzti horiek etxeko txikienean etorkizunean eragin zuzena izango dutela. Izan ere, zuoi, zutabea irakurri duzuenoi, seguruenik Olentzerori bezala pasatu zaizue, eta normaltzat jo duzue mutilek gizarteak zehazten dituen mutilen jolasekin ibiltzea eta neskak neskenekin. Gu guztiok bezala, oraindik ere Olentzerok badauka zer ikasia. Eta denon artean lagunduko bagina?

## Laskurainek Orkestra Zuzendarien nazioarteko lehiaketan hartu du parte

Jose Miguel Laskurain Caño, Londresko Royal Schools of Music-en Orkestra eta Banda zuzendaritzan birritan lizentziatutako Paraguayko Orkestra Nazionalak eta Huelvako Maestro Navarro Lara Eskolak antolatutako Orkestra Zuzendarien nazioarteko lehiaketaren hirugarren edizioan parte hartzeko aukeratu dute. Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa eta Debabarrena Orfeoia zuzentzen dituen eibartarra horrelako lehiaketa batera aurkezten den lehen aldia da hau eta aurreko hilean Coliseoan zuzendu zuen kontzertuko bideoarekin dihardu parte hartzen. Irabazlea aukeratzeko prozesuan internet bidez baikoitzak nahi duen hautagaiari botoa emateko aukera dago, [www.concursointernacionaldedirecciondeorquestra.com](http://www.concursointernacionaldedirecciondeorquestra.com) helbidean eta jendea Laskurainen aldeko botoa ematera animatu nahi dute, horrela bere ametsa betetzen laguntzeko.



## "Casa del Puebloren" mendeurrena ospatzeko erakusketa zabaldu dute

Ramón Rubial Fundazioak, Eibarko Sozialisten laguntzarekin, "La Lucha por la Libertad, el Progreso y la Justicia Social" erakusketa antolatu du, "Casa del Pueblo" Eibarko sozialisten Untzagako egoitzan, bere sorreraren mendeurrenaren harira. Urriaren 29an bete zituen 100 urteak Untzagako "Casa del Pueblak" eta, hori ospatzeko, urte osoan zehar garatzeko hainbat jardura antolatuko dituztela aurreratu dute. Egitarauko lehen ekitaldia Eibarko sozialisten egoitzaren historia agiri eta argazki bidez laburbiltzen duen erakusketa hau da. Nahi duenak datozen hilabeteotan ikusteko aukera izango du, bulego ordutegian: asteleheneetik eguenera 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 19:00etara eta barixakuetan, berri, 10:00etatik 13:30era.



## Aurten 150 guraso baino gehiago ere eskolara

Ikasturte honetan, Udalak eta Eibarko euskaltegi biek (AEK eta Udal Euskaltegia), ikastetxeekin lankidetzan "Gurasoak ere eskolara" kanpaina egin dute urrian. Egitasmoaren bitartez gurasoei euskara ikasteko aukera eskaini zaie, euren seme-alaben ikastorduetan eta ikastetxean bertan eta, horrela, 150 guraso baino gehiago animatu dira euskara ikastera. Arduradunek esandakoari jarraituta, guztira zortzi talde osatu dira: Arrateko Andra Marin talde bat, Amañan bi talde, Mogelen beste bi talde, San Andresen talde bat eta La Sallen bi talde. Azaldu dutenez, "astean lau eskola ordu jasoko dituzte eta helburua euren seme-alaben euskalduntze prozesuan eurek ere euskara ikasita laguntzea da. Azpimarratzekoa da Eibarko gurasoek erakutsi duten interesa euskara ikasteko. Ikastaro hauen bitartez gurasoek euskara ikasteaz gain, euren seme-alaben aurrean hizkuntzari dagokionean izan beharreko jarrera egokiak



ere landu nahi dira". Argitu nahi izan dutenez, "kanpaina honen jatorria Arrateko Andra Mari ikastetxean dago. Talde horren emaitzak maiatzean egindako Euskararen Transmisioaren Mintegian ezagutu genituen eta, ekimenaren arrakasta ikusita, aurtengo kanpaina antolatu da".





**Txuma Murugarren ITZIARREN**

Itziar Auzo Udalak antolatuta, gaur 22:00etan kontzertua emango du Txuma Murugarrenek, Burugorriin. 90eko hamarkadan Sasoi Ilunak taldeko abeslaria, gitarrista eta kantuen hitzen egilea izandakoak bakarkako ibilbidea hasi zuen 2000. urtean eta 'Zerbait ari da gertatzen' argitaratu berri du. Kontzertua akustikoa izango da eta sarrerak 5 euro balio du.



**"La Voz" saioko Antonio Jose ERMUAN**

Gaur 22:15ean 2015ean 'La Voz' lehiaketa irabazi zuen Antonio Josek Ermuko Antzokian abestuko du. Udalak antolatutako kontzertuan Palma del Rio-ko (Cordoba) abeslari gazteak bere lan berria, 'Senti2' aurkeztuko du.



**Bertso-jaialdia ELGOIBARREN**

Gabonetarako bertso-jaialdia antolatu du Elgoibarko Izarrak, Udalarekin lankidetzan. Abenduaren 28an izango da, 22:00etan Herriko Antzokian. Parte hartuko duten bertsolariak Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Amets Arzalluz eta Unai Iturriaga dira eta gai-jartzailea Uxue Alberdi. Sarrerak aurretik erosteko abenduaren 23ra arte Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen egoitzara joan daiteke (11 euro, 10 euro bazkideek).

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

**hildakoak**

- Juan Uribecampos Garaizabal. 86 urte. 2016-XI-30.
- Dionisia Jauregi Madinabeitia. 88 urte. 2016-XII-1.
- Antonio Robledo Garnica. 78 urte. 2016-XII-2.
- Antonio Morales Gonzalez. 63 urte. 2016-XII-3.
- Maria Ibarria Urzelai. 92 urte. 2016-XII-4.
- Miren Urizar Retolaza. 88 urte. 2016-XII-6.
- Silverio Laskurain Ubera. 81 urte. 2016-XII-7.
- Modesto Uriguen Mantecon. 54 urte. 2016-XII-8.
- Tomas Romero Maroto. 90 urte. 2016-XII-11.
- Teresa Isasi Goikolea. 93 urte. 2016-XII-11.
- Avelino Quina Perez. 86 urte. 2016-XII-12.
- M<sup>a</sup> Luisa Aretxabaleta Albistegi. 65 urte. 2016-XII-13.
- Herminia Estevez Otero. 94 urte. 2016-XII-13.
- Pedro M<sup>a</sup> Garma Quintana. 56 urte. 2016-XII-13.
- Generosa Fernandez Otero. 90 urte. 2016-XII-14.
- Jose Angel Berasaluze Urkizu. 70 urte. 2016-XII-14.

**jaiotakoak**

- Rabab Hasmi Essaidi. 2016-XI-27.
- Haizea Iriondo Rodriguez. 2016-XI-28.
- Adam El Fatehy. 2016-XI-28.
- Unai Bastida Perez. 2016-XI-28.
- Ane Artetxe Barrutia. 2016-XI-30.
- Mikel Garcia Clemente. 2016-XII-4.
- Jare Bergaretxe Martinez. 2016-XII-5.
- Kai Barrientos Irisarri. 2016-XII-8.
- Ander Iriondo Sarasketa. 2016-XII-12.
- Malen David Treviño. 2016-XII-13.

**farmaziak**

- Barixakua 16  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 17  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Domeka 18  
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Astelehena 19  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 20  
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Eguaztena 21  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Eguena 22  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 23  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

GAUEZ BETI - 2016AN-  
Iraundegi (Calbeton, 19)

**telefono jakingarriak**

- SOS deiak.....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus .....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Txiaki .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

AURREKOAREN EMATZA

**SUDOKUA**

2	8	5	1	3	9	7	6	4
1	9	6	7	4	8	5	2	3
3	7	4	2	5	6	8	1	9
8	4	1	6	7	3	2	9	5
6	5	7	9	1	2	4	3	8
9	3	2	5	8	4	6	7	1
5	2	8	3	6	1	9	4	7
4	6	3	8	9	7	1	5	2
7	1	9	4	2	5	3	8	6

		3	7					
7	5				4	9	8	
				6		7		5
	7			8		2		3
3		4		9			1	
6		2		7				
	1	9	5				7	2
					9	4		

**Barixakua 16****EIBARKO KANTUZALEAK**

**17:00.** Abesbatzaren emanaldia. Egogain Gerontologia Zentruan.

**KONTZERTUA**

**21:00.** Mendaroko Munlet taldea. Beleko tabernan.

**Zapatua 17****EIBARLAB'S**

**10:00/16:00.** "Ikasi zure landareentzako urreztatze sistema automatizatu bat eraikitzen!" tailerra. Biharran-en (Ubitxa 16-18).

**LIBURU AZOKA**

**11:00/19:00.** Eibar-Sahara Elkartearen liburu azoka. Untzagan.

**GABONETAKO PARKEA**

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** Astelena Gabonetako haur parkea. Astelena frontoian.

**ERABAKI BIOT**

**12:30.** Erabakitze eskubidearen aldeko kanpainaren hasiera eta talde argazkia, Gure Esku Dago-k deituta. Untzagan.

**MAHAI-JOKOAK**

**16:00.** Txapelketa: "flor" jokoa. Kantabriako Etxearen tabernan (Jardiñetan).

**IGERIKETA**

**16:00.** XXVIII. Gabon Kopa. Ipuruia kiroldegian.

**TAILERRA**

**17:00.** Gabonetako apaingarriak egiteko. Armagintzaren Museoa.

**OLENTZERO**

**17:30.** Olentzero eta Mari Domingiren bisita. El Corte Inglesean (sarreran).

**KIROLA FAMILIAN**

**17:30/19:30.** Udazken-neguko asteburueta meek jolasteko gune irekia HHko umeentzat (2-5 urte). Ipuruia kiroldegian.

**Domeka 18****ETORKINEN NAZIOARTEKO EGUNA**

**10:00.** Senegalgo kulturaren jaialdia. Ongietorria.  
**10:30.** Senegalgo pintxo tipikoen dastaketa.  
**11:00.** TU KU TUN txalaparta eta Senegalgo dantzak (Sabar).  
**14:00.** Herri bazkaria.  
**16:00.** Jolasak.  
**17:00.** Senegalgo musika zuzenean. Untzaga plazan.

**KROSSA**

**10:30.** Bolunburu LXVII. Oroigarri Krossa. Arraten.

**DONOSTIA 2016 ENERGIA OLATUA**

**11:00/14:00.** Kultur jardunaldi parte-hartzailea. Txontan.

**LIBURU AZOKA**

**11:00/19:00.** Eibar-Sahara Elkartearen liburu azoka. Untzagan.

**LONTZERTUA**

**12:30.** Cielito Musika Bandaren Gabonetakoa. Eguraldiaren arabera, kalejira egingo dute aurretik (11:15). Coliseoan.

**KIROLA FAMILIAN**

**17:30/19:30.** Udazken-neguko asteburueta meek jolasteko gune irekia HHko umeentzat (2-5 urte). Ipuruia kiroldegian.

**Martitzena 20****IKASTEN**

**16:00.** Puntu tailerra.  
**17:00.** Joskintza tailerra. Portalean.

**TAILERRA**

**18:30.** Idazketa eta irakurketa tailerra: Emakumeen historia (Frida Kahlo). Portalean.

**MONOLOGOIA**

**19:00.** "Sexijentziak" (Bazen Behin Clown). Kultu tabernan.

**Eguaztena 21****GABONETAKO AZOKA**

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30.** "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

**KONTZERTUA**

**19:00.** J.B. Gisasola Musika Eskolako ikasleen Gabonetakoa. Coliseoan.

**EIBARKO KANTUZALEAK**

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**Eguena 22****GABONETAKO AZOKA**

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30.** "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

**ANTZERKIA**

**18:00.** "Dindirindi Mari Domingi" antzezlan musikala, Zirtaka antzerki taldearen eskutik. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

**KALEETAN KANTUZ**

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**KONTZERTUA**

**20:30.** Trio Medianoche taldearen kontzertua. Coliseoan.

**zineaColiseoan****(1 ARETOAN)**

**17an: 19:45, 22:30**  
**18an: 20:00**  
**19an: 20:30**

**"El ciudadano ilustre"**


Zuzendaria: Mariano Cohn

**(2 ARETOAN)**

**17an: 17:00 (1), 19:45, 22:30**  
**18an: 17:00 (1 Aretoa), 20:00**  
**19an: 20:30**

**"Absolutamente fabulosas"**

Zuzendaria: Mandle Flechter

**(ANTZOKIAN)**

**17an: 17:00, 19:45, 22:30**  
**18an: 17:00, 20:00**  
**19an: 20:30**

**"Rogue One. Star Wars"**


Zuzendaria: Gareth Edwards

**(2 ARETOAN)**

**17an: 17:00**  
**18an: 17:00**

**"Vaiana"**

Zuzendaria: John Musker







**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, ONEKA, hillaen 13an urtetxua bete zenduan-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, NORA, etxeko printzesa, hillaen 13an lau urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MARKEL, hillaen 8xan zazpi urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARTIN, hillaen 7xan zazpi urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Helenaren partez.



Zorionak, GORKA, martitzen urtetxua egin zenduan-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ZALOA, zure hamargarren urtebetetzian. Etxeko txikitxua haundi egin jaku honezkeru. Musu bat etxekuen partez.



Zorionak, GAIZKA, hillaen 9xan zazpi urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa eta, batez be, arrea Alaitzen partez.



Zorionak, IRAI, pitxin! Ondo pasau zure 4. urtebetetzian! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ENEKO, atzo 12 urte bete zenduazelako. Besarkada bat laguneren partez.



Zorionak, AITOR, zure bigarren urtebetetzian. Musu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, LIER, hillaen 7xan zortzi urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat guraso eta Markelen partez.



Zorionak, JUNE, gure printzesak hillaen 7xan zazpi urte bete zittuan-eta. Musu potolo bat famelixaren partez.




Zorionak, M<sup>a</sup> VICTORIA Vila, gaur 6 urte egiten dozuzelako. Munduko onena zara! Musu bat etxekuen partez.



Zorionak, JULEN, domekan zortzi urte egingo dozuz-eta. Patxo potolo bat famelixaren partez.



Zorionak, IBAN, zure 5. urtebetetzian. Famelixa guztiaren eta, batez be, Izei eta Aratzen partetik.



Zorionak, JUNE, sorgintxo, gaur sei urte egiten dozuz-eta. Aitxitxa-amamen eta gurasuen partez.




Zorionak, JULE, astelehenian urtetxua bete zenduan-eta. Musu haundi bat famelixakuen partez.



Zorionak, NAIA Navarrete, domekan bost urte egingo dozuz-eta. Aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, MIREN, aurreko domekan bost urte egin zenduaz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, URKO Lapeyra, hillaen 11n urtetxua bete zenduan-eta. Musu bat etxekuen eta, batez be, Mikel zure anaixaren partez.



Zorionak, NORA, bixar 10 urte beteko dozuz-eta. Primeran ospatuko dogu! Patxo pillo bat famelixa eta, batez be, Maialen eta Ikerren partez.



Zorionak, MIKEL, zure lehelengo urtebetetzian. Asko maite zaittugu, potolo! Famelixa guztiaren eta, batez be, Joneren partez.




Zorionak, JULENE, San Andres egunian 11 urte egin zenduazelako, eta EÑAUT, etzi 9 egingo dozuzelako. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MADDI, zure 9. urtebetetzian. Segi beti bezain alai eta jator. Patxo potolua famelixa guztiaren eta, batez be, NAIA zure ahiztiaren partez.



Zorionak, MAHER eta AMIR (hillaen 4an urtebete eta hiru urte egin zenduaz-eta). Segi hain jatorrak izaten. Gurasuen partetik.



Zorionak, MARA (atzo zazpi urte bete zittuan) eta ALAIN (lau egingo ditte bixar). Musu haundi bat etxekuen partez.



Zuen urtebetetzian dirala-eta, zorionak, PATXI eta JARE, eta patxo potolua famelixa guztiaren eta, batez be, Joneren partez. Ez galdu inoiz irrifarre polit hori!

**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Etxebizitza salgai, aldamenen duen lokala etxebizitzari emateko baimenarekin. 2 logela, sukaldea eta komuna. Berrizteko. 90 m<sup>2</sup>. Tel. 605-716777.  
– 42 m<sup>2</sup>ko mobil-homea salgai Bañaresen (Errioxa). Teilatu bikoitza. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna duxarekin. 30 m<sup>2</sup>ko terraza toldoarekin. Aire egokitua. 25.000 euro, negoziagarriak. Tel. 688-801329.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 631-252750.  
– Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 628-747805.  
– Neska arduratsua hiru logelako pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.  
– Buhardilla edo apartamentu txikia hartuko nuke alokairuan. 1 edo 2 logelakoa. Tel. 602-377921.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Taberna traspasatzen da Eibarren. Tel. 628-235319.  
– Taberna traspasatzen da Ipuruan, foball-elaiaren bidean. Tel. 680-871529 eta 943-256110.

### 3.2. Errentan

– 100 m<sup>2</sup>ko lokala alokairuan Elgoibarko Sigma poligonoan. Erabilera anitza: bulego, biltegi... Instalazio elektriko eta urarekin. 400 euro. Tel. 686-888004.  
– 18 urteko gorako gazteentzat aukerako lokala alokagai. Ondo prestatutakoa. Tel. 600-890245.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta formakuntza. Tel. 602-810654.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 602-047812.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065683.  
– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 602-001567.  
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 631-499198.

– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 628-765929.  
– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 695-917617.  
– Haur Hezkuntzako teknikaria eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 651-706980. Asier.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.  
– Emakumea eskaintzen da etxeak edo pegorak garbitzeko eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 680-981704.  
– Emakumea eskaintzen da dendari jarduteko, sukaldean laguntzeko eta tabernak edo lokalak garbitzeko. Tel. 666-008974.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-123942.  
– Emakumea eskaintzen da 09:00etatik 17:00etara nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 634-446252.  
– Neska eskaintzen da 09:00etatik 16:00etara etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 622-417528.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-747703.

– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 615-394820.  
– Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-458061.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-988471.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta dendari jarduteko. Tel. 632-426847.  
– Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.  
– Eibarko emakume arduratsua eskaintzen da goizez edo ordu solteetan administrazio lanak egiteko. 10 urteko gorako eskarmen-tua. Tel. 658-845081.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-546032 eta 669-179522.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak (baita ospitalean ere) zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 688-959575.  
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-572229.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-227800.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 661-001246.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 605-303657.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 658-158036.  
– Emakumea eskaintzen da 15:00etatik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 654-304337.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-533729.  
– Emakumea eskaintzen da arratsalde eta gauz nagusiak zaintzeko. Tel. 689-003537.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 664-357381.

– Gizona eskaintzen da kamioia gidatzeko, garbiketarako egiteko eta zinpeko zainzaile jarduteko. Tel. 666-655269.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta dendari jarduteko. Tel. 632-426847.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-193518.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 634-256471.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 631-221729.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-420183.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-488692.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 695-347162.

## 4.2. Langile bila

– Langilea behar da Amañako okindegi-kafetegian. Tel. 670-251280. jantae-dan@hotmail.com  
– Estetizista behar da Eibarko zentro bate-tarako. Bidali curriculum: esteticienei-bar@gmail.com  
– Sukalde-laguntzailea behar da Eibarko taberna batean. Tel. 639-792203.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 iza ileko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592 509. Alberto.  
– Fisika, Matematika eta Kimikako klase partikularrak eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez lau laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.  
– Irakaslea den neska euskalduna eskaintzen da IH eta DBH mailetan klase partikularrak emateko. Tel. 699-495279.  
– DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloetako Matematika, Fisika, Kimika, Kontabilitatea eta Ekonomia klase partikularrak ematen dira. Tel. 685-739709.  
– LHtik DBH 2. mailara arteko ikasleei zuzendutako klase partikularrak ematen ditut. Tel. 616-690620.

## 6. Denetarik

### 6.2. Eman

– Txakur "ratoneroak" oparitzen dira. Urriaren 20an jaiotakoak. Tel. 602-457169.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus



Aldatzea jarrera bat da.  
Irabaztea gozamina.



16.900€

#changeisgood

ABC MEJOR COCHE 2016

Hyundai Tucson Berria.  
2016 urteko auto  
onena Espainian.

Aldaketaren alde egin genuen eta irabazi egin dugu. Sari handi bat lortu dugu: 2016 Urteko Auto Onena izatea Espainian. Auto handi batendako saria, baina batez ere jarrera batendako. Hyundai Tucson Berrian apostu desberdina ikusi dutenei esker.

Esperimentatu aldaketaren indarra [www.hyundai.es](http://www.hyundai.es) helbidean

 **HYUNDAI** NEW THINKING.  
NEW POSSIBILITIES.

**ORSO CAR**

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZOARAKO

**ELGOIBAR**

Olaso Polig., 17

943 74 14 80



Hyundai Tucson Gama:  
CO<sub>2</sub> Emisioak (gr/km):  
119-175. Kontsumo mistoa  
(l/100 km): 4,6-7,5

# ERNE

## “SD EIBAR” BIRUSA HEDATZEN ARI DA...



**EIBARRERA ABONATU**

**Eta PRIMERAKO AFIZIO BAT kutsatu**

Informatu zaituz: [www.sdeibar.com/abonatuak](http://www.sdeibar.com/abonatuak) edo 943 201 831



**SDEIBAR**

#kutsatuzureafizioa



# % 30 -EKO DESKONTUA EGUZKITAKO BETAURREKOETAN

**RALPH**  
RALPH LAUREN EYEWEAR




*Ray-Ban*

**OAKLEY**

*arnette*  
sunglasses

*eta askoz gehiago...*



[www.multiopticasgipuzkoa.com](http://www.multiopticasgipuzkoa.com)   

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

**MULTIOPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan